

euskara
mendebaleko
lautada

iruña-veleia
euskal ostraka

GEU

2,40 €

2009ko martxo

193

kultura
arabako herri inauteriak

zinea
VI. film laburren zirkuitua
berlinala 09

eduardo anitua
mediku ikertzailea



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!



ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA > AULA MAGNA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna | **APIRILAK 25 - 11:00** larunbata

ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata

ORDIZIA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA

APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata

OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APIRILAK 2 - 18:00 osteguna

IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidaso.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna | **APIRILAK 23 - 18:00** osteguna

ESKORIATZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu


www.mondragon.edu/prest



ensueños loinaz

madre vedruna 18

vitoria-gasteiz 945 13 38 38



ensueños loinaz
madre vedruna 18
945 133838
gasteiz



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 193

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:
2009ko KUOTA MARTXOAREN
AMAIERAN KOBRATUKO DIZUEGU.
eskerrik asko!

geupertsonaia

eduardo anitua, mediku ikertzailea7-11

geugaia

arabako herri inauteriak13-17

arte txokoa

VI. film laburren zirkuitua24-27

arte txokoa

berlinale 09. ali ekert argazkilaria28-31

euskara&historia

euskara mendebaleko lautadan34-35

beste:

iritzia: i-v. seguru zaudete?18

gaztezulo20

musika zutabea33

geusex37

GEHIGARRI BEREZIA:

RUÑA-VELIAKO EUSKARAZKO GRAFITIAK

agenda, kaletik, euskaltasunean,
proposamenak, araba bixotzian,
historia eta idazleen zutabeak,
errezeta eta umorea

7-11



13-17



24-27



28-31


GEU

GEU aldizkaria | sorrera-data: 1992 | helbidea: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhoa arriaga, narioa cuesta eta ane pedruzo | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak:

geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: maider lacalle, kike fdz de pinedo, katixa agirre, uhina, erlantz urtasun, miren lpz de arregi (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanasmendizorrotzako ostalaritza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | **GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.**

www.geugasteiz.com

Laguntzaileak:



zeregin euskaraz [martxoa]



>KULTUR ERROTA

GARABI TALDEA

MUSIKA ETA POESIA UZTARKETA

MARTXOAK 31 ASTEARTEA

20:30 PARRAL TABERNAN

>EUSKARAZKO FILM LABURREN

EMANALDIA

MARTXOAK 24 ASTEARTEA

19:30 MONTEHERMOSO-N



>IRAKURLE KLUBA

MARTXOAK 26, OSTEGUNA

FRANZ KAFKA, BIZIAN ARGITARATUTAKOAK, ALBERDANIA-ELKAR 2007

-APIRILAK 23, OSTEGUNA

EIDER RODRIGUEZ, HARAGIA, SUSA 2007
HIKAATENEAN, PINTORE KALEA 13, 20:00
KONTAKTUA: IBAN.ZALDUA@EHU.ES

>GEUREKIN MENDIRA

MARTXOAK 15 IGANDEA

SAN LORENZO (2271M) VALDEZCARAY

*ARRATSALDE ERDIRA ARTE

IRTEERA: LOVAINA PLAZATIK/KOTXEZ

ORDUA: 9:00

ARDURADUNA: XABI B. (945227303)

GEUREKINMENDIRA@GMAIL.COM

WWW.GEUGASTEIZ.COM

GEUELKARTEA@GRN.ES/945222153



ABTX09

SUSTRAIAK ERROTUZ

-FINAL AURREKOAK

MARTXOAK 15 IGANDEA

ZIGOITIA (KULTUR ETXEAN) 17:00

(G: IDOIA BEITIA)

MARTXOAK 22 IGANDEA

ARAMAIO (KULTUR ETXEAN) 17:00

(G: LIERNI ALTUNA)

-FINALA

APIRILAK 4 LARUNBATA

GASTEIZ (PRINCIPAL ANTZOKIAN) 17:00

WWW.BERTSOZALE.COM

dek korrika KULTURALA PROGRAMAZIOA

KORRIKA16

(TUTERA-GASTEIZ. MARTXOAK 26-

APIRILAK 5)

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGUNON

HERRIRA!

KORRIKA KULTURALA

>ZURA KONTZERTUAN

(BOSSA NOVA EUSKARAZ)

MARTXOAK 5 OSTEGUNA

20:30 GORA TABERNAN

3KORTXEAREN ESKUTIK

>DJ GRASSMAN

MARTXOAK 6 OSTIRALA

23:00 GORA TABERNAN

>KULTURBIRA

TXALAPARTARIAK, PERKUSIO TAILERRA,

TXOKOLATADA...

MARTXOAK 12 OSTEGUNA

ARRATSALDEAN ANDRE MARI

ZURIAREN PLAZAN

>MIRANDE KABARETA

ANTZERKIA, LITERATURA ETA ZUZENEKO

MUSIKA

MARTXOAK 13 OSTIRALA

20:30 EL JARDIN DE FARELINA KAFETEGIAN

>KORRIKA-XIBA TOPAKETA

DBH-KO LEHEN ZIKLOKO IKASLEEKIN

MARTXOAK 26 OSTEGUNA

ARRATSALDEAN FORU PLAZAN

WWW.KORRIKA.ORG

OREKA TX

NÖMADAK TX: MUSIKA BIDAIA BAT

MARTXOAK 7, 20:30

PRINCIPAL ANTZOKIAN (18/16/6 EURO)

MAGIA TEILATUAN

TXALO PRODUKZIOAK

4 URTETIK GORAKOENTZAT (FAMILIA

ANTZERKIA)

MARTXOAK 15, 18:00

PRINCIPAL ANTZOKIAN (6 EURO)

INALANBRIKAK

VAIVEN TEATROA

6-12 URTE BITARTEKOENTZAT (FAMILIA

ANTZERKIA)

MARTXOAK 1, 18:00

PRINCIPAL ANTZOKIAN (6 EURO)

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG/TEATROS

945161045

EUSKAL NARRATIBA GAUR HITZALDI ZIKLOA. GAURKO ELEBERRIA

MARTXOAK 1 - MAIATZAK 31.

GASTEIZ. EHU. 10:30

-T TRAGEDIA, T TERESA-JUANJO

OLASAGARRE

MARTXOAK 4. EHU. LETREN

FAKULTATEA 0.09 GELAN

-KONTATZEKO MODU BERRIAK. KIRMEN

URIBE

MARTXOAK18 EHU. LETREN

FAKULTATEA. GRADU ARETOA

-OROIMENAREN URA. IÑIGO ARANBARRI

APIRILAK 22 EHU. LETREN

FAKULTATEA. GRADU ARETOA

-NOBELA ETA GENEROA. ANJEL LERTXUNDI

MAIATZAK 6 EHU. LETREN

FAKULTATEA. GRADU ARETOA

WWW.EUSKO-IKASKUNTZA.ORG

KULTURA ETXEA

>INTERNET KAFE

KIRMEN URIBE & MIKEL URDANGARIN

MARTXOAK 12 OSTEGUNA, 20:00

>IRAKURKETA KLUBAK

GALTZAGORRI ELKARTEA

MARTXOAK 14 LARUNBATA, 11:00-12:30

WWW.GALTZAGORRI.ORG

AFA-REN EUSKARA, KULTURA ETA

KIROL SAILA

WWW.ALAVA.NET

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

>BERDEA BIRAKA. ROSA

AGUIRREBEÑA

SOLASALDIA: ERAZTUN BERDEA OSATZEN

DUTEN PARKEAK

MARTXOAK 4, 18:30

EL PILAR G.E-AN

>MUNDUARI PARTXEAK JARTZEN.

JON PLAZAOLA

BAKARRIZKETAK, IMITAZIOAK ETA TXISTEAK

MARTXOAK 12, 19:00

HEGOALDE G.E-AN

SARRERA LIBREA

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

KULTURIKA

MUSIKA KALE-KANTOIETAN

HBIKO 3 KORTXEA & GASTEIZKO IKA-REN

ESKUTIK

>KASKEZUR

MARTXOAK 1, 20:30

HALA BEDI TABERNAN

>POG MO THON

MARTXOAK 3, 20:30

PARRAL TABERNAN

>TRAPATONI ZIRKUS BAND

MARTXOAK 5, 22:00

GASTEIZKO GAZTETXEAN

KONTZERTUA:

SHARON STONER + SIXTY SEXERS

+ BRONZE

MARTXOAK 28 LARUNBATA

22:00 HELLDORADO ARETOAN

WWW.HELLDORADO.NET

KULTUR CAMPUS

>FANTASIAZKO IPUIN LABURREN

XVII UNIBERTSITATE-LEHIAKETA

EPEA: APIRILAK 29

>FELIX UGARTE XVII ITZULPEN-

LEHIAKETA

EPEA: APIRILAK 29

INFO+: WWW.ARABA.EHU.ES

EUSKARABILA IPUIN EROTIKOEKIN 14. LEHIAKETA

EPEA: APIRILAK 23

1. SARIA: 500 EURO

2. SARIA: 300 EURO

EUSKARABILA ELKARTEA, 146 P.K 48970

BASAURI

EUSKARABILA@TOPAGUNEA.COM

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

INTERNET BIDEZKO BIDEO LEHIAKETA

BARTZELONAKO EUSKAL ETXEAREN EUSKAL ZINEMA ZIKLOAREN BARRUAN BERTSOLARITZA + BIDEO-SORMENA

EPEA: MAIATZAK 3 (14:00)

INFO+OINARRIAK:

HTTP://BLOG.EUSKALETXEAK.ORG/CATEGORY/FESTIVALS/ZINEMALDIA/

IRUDITXOKOA

>LURRA (AZPITITULUEKIN)

MARTXOAK 6

>HAIZEAREN IBILTARIAK

MARTXOAK 13

>DEEP BLUE

MARTXOAK 27

>ARCTIC TALE (DOKUMENTALA)

APIRILAK 3

20:00 LUIS DE AJURIA ARETOAN
GAUEKOAK & CINE CLUB ORHUM-EN
ESKUTIK
WWW.GAUKEOAK.COM



Proyección de películas clásicas y contemporáneas pensadas para todos los públicos. Los y las niños, acompañados por una persona adulta, tendrán la posibilidad de acercarse

MATINÉ

(PUBLIKO GUZTIAREN ZAKO ZINEMA)

ANIMAZIO FRANTSESEKO ZIKLOA
EUSKARAZKO AZPITITULUAK

MARTXOAK 8

-COURTS DE RÉCRÉ (ATSEDEALDIRAKO
LABURMETRAIAK)

MARTXOAK 15

-DU COURT AU LONG (LABURMETRAIAK
LUZEMETRAIARA)

MARTXOAK 22

-ENFANTILLAGES (UMEKERIAK)

MARTXOAK 29

-!AH! L'AMOUR (ENE, AMODIOA!)

MONTEHERMOSO KULTURUNEAN

11:00 GONBIDAPEN BANAKETA

11:15 PROIEKZIOAK

WWW.MONTEHERMOSO.NET

MONTEHERMOSO.

TAILERRAK (UMEAK & GAZTEAK)

-CMK TALDEA

LARUNBATERO 11:00-12:30

DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA

8-13 URTE BITARTEKOENTZAT

-TXIKIART

LARUNBATERO 18:00

DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA

4-8 URTE BITARTEKOENTZAT (HELDU BATEK
LAGUNDUTA)

WWW.MONTEHERMOSO.NET

ANTZERKIA: TXINTXILIPURDI ERREGEA

PANTA RHEY ANTZERKI TALDEA

MARTXOAK 14, 20:00

ONDATEGIKO KULTUR ETXEAN

WWW.ZIGOITIA.COM

ZINEA ETURAN

KIRIKU ETA SORGINA

MARTXOAK 28 18:30

ETURAKO GIZARTE ETXEAN

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

>PAGOETAKO PARKE NATURALA

MARTXOAK 28 LARUNBATA

ELKARGUNA: AIAKO APARKALEKUA
IBILBIDEA: AIA, GOROSTIOLA, AGORREGI,
MANTEROTA SALETXE, SAROBE,
ORORTEGI, AIA.

9:30-13:30. DOAN

943835389 / ITURRANAN@GIPUZKOA.NET

WWW.AIAPAGOETA.COM

>MONTEHERMOSO KULTURUNEAN

BISITALDI GIDATUAK

ASTEAZKENERO, 19:30 /

LARUNBATETAN, 13:00 (EZ DA

BEHARREZKOA DEITZEA)

TALDEAK: ATEARTETIK OSTIRALERA,

18:00 (AURRETIK ERRESERBA EGINEZ)

[945161859 /

EDUCACION@MONTEHERMOSO.NET]

BISITALDIAREN HASIERA: ARGIBIDE

ZERBITZUAN

-HAU EZ DA BISITA BAT

IGANDERO 13:00

BISITARIK PROTAGONISMOA HARTZEN

DUTEN ZENBAIT DINAMIKAREN BITARTEZ

ERAKUSKETARI BURUZKO DISKURTSO

BERRIAK ERAKITZEN DIRA

WWW.MONTEHERMOSO.NET

>ANDRA MARI KATEDRALA

945255135

WWW.CATEDRALVITORIA.COM

>GASTEIZKO ERDI AROKO

HARRESIA

ERRESERBAK: ANDRAMARI

KATEDRALAREN BISITARIEN ZENTROAN

(945255135)

4 BISITA EGUNEKO (IRAUPENA: ORDUBETE);

11:15/12:45/17:15/18:45

2 EURO PERTSONAKO

>GATZ HARANA. GESALTZA

AÑANA

ASTELEHENETIK IGANDERA

(JAIEGUNAK BARNE):

11:00/12:00/13:00/16:00/17:00/18:00

BISITALDIA EUSKARAZ: 10 LAGUN BAINO

GEHIAGOKO TALDEAK

HELDUAK: 3 EURO/LAGUNDUTAKO

HAURRAK: DOHAINIK/TALDEAK: EURO 1

945351111

WWW.VALLSALADO.NET



ARTIUM

>ERAKUSKETEN BISITALDI
GIDATUAK

ASTEAZKEN, LARUNBATERO ETA

IGANDERO 11:30

BANAKO BISITARIENTZAT. DOAN. PLAZA

MUGATUAK

>TALDEENTZAKO BISITALDI

HITZARTUAK

DERRIGORREZKOA ALDEZ AURRETIK

ERRESERBA EGITEA (73 EURO)

>ARTIUM TXIKIA

(3-5 URTE + HELDUAK, IGANDEETAN 12:15-13:30)

-ELKARREKIN LORTUKO DUGU

MARTXOAK 1

-EZ GALDU ERITMOA!

MARTXOAK 8

-GURE GORPUTZAK FORMA ASKO DITU

MARTXOAK 15

-NIRE LAGUNAK ETA NI

MARTXOAK 22

-GOAZEN ZIRKURA!

MARTXOAK 29

>GOIZEAN ARTIUMEN

(6-11 URTE + HELDUAK, IGANDEETAN 12:00-13:30)

-ERAIKITZEN IKASIZ

MARTXOAK 1

-EZAGUTU EZAZU ZURE HIRIA

MARTXOAK 8

-ENTS, BASAJAUN ETA NI

MARTXOAK 15

-TXOTXONGILOEN GELA

MARTXOAK 22

-GAUR, KAOSA BURU

MARTXOAK 29

>FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK

(5-11 URTE + HELDUAK/LARUNBAT &

IGANDEETAN 12:30-13:15)

-BADA HEMEN HEROIRIK?

OTSAILAK 28, MARTXOAK 1

-BILA

MARTXOAK 7, 8

-IKUSI, BAI BAINA EZ UKITU

MARTXOAK 14, 15

-ETA HAU HALA BAZAN...

MARTXOAK 21, 22

-GORPUTZA

MARTXOAK 28, 29

INFO + ERRESERBAK: 945209010

WWW.ARTIUM.ORG

KULTUR IKASTAROTARAKO LAN POLTSA
DEIALDIA

GASTEIZKO UDALEKO KULTURA
SAILAK KULTUR IKASTAROK
IZENENKO PROGRAMA ANTOLATZEN
DU URTERO, GIZARTE ETXEETAN
BURUTZEN DITUEN IKASTAROEEN
PROGRAMAZIOAREN BARRUAN.
HAINBAT ESPEZIALITATERI
BURUZKO IKASTARO TEORIKOAK
DIRA KULTUR IKASTAROK, ETA
HERRITAR GUZTIEI KULTURAREN
ALORRETAKO EZAGUPENAK
ZABALTZEA DUTE HELBURU,
ADITUEN LANARI ESKER, ERA
ATSEGIN ETA DIDAKTIKO BATEAN.

2009-2010 IKASTURTEKO KULTUR
IKASTAROEEN PROGRAMAZIOA
GAUZATZEKO, PROIEKTUAK BEHAR DITU
KULTURA SAILAK, ETA HORRETARAKO
HONAKO DEIALDI HAU ZABALDU DU:

- KULTURA IKASTAROK BURUTZEKO
PROIEKTUEN POLTSA OSATZEKO
DEIALDIA.

DEIALDI HAUEN OINARRIAK HIRITARREI
LAGUNTZEKO BULEGOETAN ETA
ERREGISTRO OROKORREKO BULEGOAN
(PLAZA BERRIAN) IZANGO DIRA
ESKURAGAI OTSAILAREN 2TIK AURRERA,
ETA PROIEKTUAK BERTAN AURKEZTU
BEHARKO DIRA APIRILAREN 31A (BARNE)
BAINO LEHEN.

INFO+: 945 16 13 48 /

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

SUSTRAIAK ERROTUZ

FINAL AURREKOAK

- MARTXOAK 15 IGANDEA.
ZIGOITIA (KULTUR ETXEAN) 17:00
(G: IDOIA BEITIA)
- MARTXOAK 22 IGANDEA.
ARAMAIO (KULTUR ETXEAN) 17:00
(G: LIERNI ALTUNA)

FINALA

APRILAK 4 LARUNBATA.
GASTEIZ (PRINCIPAL ANTZOKIAN) 17:00

Cosimo eroso egon zitekeen arrama lodi batera igo zen, eta bertan eseri, hankak zintzilik, besoak gurutzatuta eta eskuak besazpietan, burua sorbalda artean hondoratuta, eta txapela kopetaraino sartuta. Gure aita leihoaren karelera azaldu zen.

Hor egoteaz aspertzen zarenean hobeto pentsatuko duzu – oihu egin zion.

Ez dut inoiz hobeto pentsatuko – esan zuen nire anaiak, arramatik.

Ikusiko duzu, jaisten zarenean!

Ez naiz inoiz jaitsiko!

Eta ez zen inoiz jaitsi.

Italo Calvino

Il barone rampante, 1957

Cosimok bezala, ideia errotu eta sendo bat dugu guk ere; bertsotan bizi gara. Baina badugu diferentzia bat: zuhaitzera igo beharrean, zuhaizpera goaz. Sustriak bila. Sustriak bota genituelako aspaldi Araban, eta Arabaren sustriak jada berezkoak direlako.

2009ko Arabako Bertsolari Txapelketa horretara dator: SUSTRAIAK ERROTZERA. Zuhaitz ederrak sortuko direlako gero, hitz neurtuaren formakoak.

MANEX AGIRRE NAGUSITU DA ARABAKO BERTSO TXAPELKETAKO LEHEN KANPORAKETAN

Finalerditarako txartel zuzena lortu du aramaioarrak. Amurrión eman zioten hasiera aurtengo bertso txapelketari otsailaren 21ean

t. a. arabako bertsozale elkarteak

Manex Agirre aramaioarrak irabazi zuen Arabako Bertso Txapelketako lehen kanporaketa. Amurrión girotu zuten berrogei bat lagunak afalondoa. Manex Agirre, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi, Ruben Sanchez, Serapio Lopez eta Felipe Zelaieta lehiatu ziren bertan. Sei bertsolariek zortziko nagusian eta zortziko txikian egin behar izan zuten ofizioko lana eta, bakarkako atalean, puntuari erantzuna eta hitzari bertsoa botatzea izan zuten betebeharrak. Lierni Altuna aritu zen gidari lanetan.

Hamar eta erdiak jota bertso saioa hasterako. Agurra moztuz jantzita kantatu zuten bertsolariek ihauterietako ohiturei jarraituz. Aratusteen doinuren bat ere entzuterik izan zen.

Enpresa bereko langileen arteko gorabeherak izan zen saioan murgiltzeko lehen gaia. Felipe eta Serapio kaleratze prozesuan dauden bi langilearen azalean jarri zituzten. Mobilizazio askoren ostean, Felipek, kaleratzea onartu du, Serapiok aldiz, mobilizatzen jarraituko du. Serapiok gogoz eutsi zion borrokari. Langilearen patua hori dela eta jabeak barre egiten zela kantatu zion Felipek: "Ia galduta bagaude eta / galdurikan ez da galtzen". Jarraian heldu zion Felipek bere lagunaren esanari: "Baina galduta egon gaitezke / beste askotxo bezala / jarraituz gero sindikatuek / jarritako erregela / adiskidea gu urte luzez ezingo gara horrela / ikusten da bai, Serapio, lagun, / oraindik soltero zaudela".

Braille ikastaro batean elkartu ziren Ruben eta Juan Mari eta ale politak joan ziren bertsoaldian. Zigor eta Manexek, ordea, beraien etxea sutan zego-

ela jarri zituen Lierni Altunak. Zigor eta Manexen etxea sutan dagoela, Zigorrek barrura sartzea arrisku-tsuegia dela uste du. Manexek aldiz, kosta ahala kosta barrura sartu nahi du. Gaia emanda Zigor Enbeitak hartu zuen mikrofonoa lehenik: "Etxea sutan aurrean dugu / eta urduri zaudenez / erabakia hartzeko unean / dena ikusi aldrebes / ez zaitez, arren, barrura sartu / eskatzen dizut mesedez! / etxea berriz erosi geinke / baina zure bizitza ez". Manexen erantzuna tamainakoa izan zen: "Bizitza bertan galduko duzunik / hala dioztazu grabe / baina ezin du, Zigor, ikusi / etxea garren mirabe / gu biok geldirik geldituz gero / ezer ere egin gabe / etxe barruan erreko dira / gure oroitzapenak ere".

Zortziko txikia arin eta umoretsu joan zen. Serapio eta Ruben rokerok gazte eta zaharren azalean sartu ziren oraingoan. Serapioren musika talde berrian kide bat faltan zutela, nor aurkeztu eta Ruben, 60 urteko agurea: "Baina temoso naiz / ta askotan plasta / maurizian doinura ta evariston kasta".

Bakarka bereziki nabarmendu zen ihauteri giroaz gain, hauteskunde egutegia. Hitz "zubia" izanik, Juan Mari Juaristik ondo gogoan hartu zuen egunotako egoera politikoa: "Batzuk ez dute eskubiderik / hori e zote dugu drama? / pixkat pentsatuz zein beltza den / gaur daukagun panorama / Euskal Herrian zubia ez al da / alde bakarra daukana?".

Puntuari erantzunean fin ibili zen lehenbiziko sailkatu zen Manex Agirre: "Politikoez dute hamaika aurpegi / gezurra sobran eta / faltan mila egi / promettizen dituzte / agian gehiegi / ondoren bihurtzeko / denontzat miseri".



Saioak gauerdiko hamabiak iristear izan zuen amaiera eta ondorengo puntuazioa lortu zuten parte-hartzaileek:

MANEX AGIRRE: 158
JUAN MARI JUARISTI: 149'5
ZIGOR ENBEITA: 148'5
SERAPIO LOPEZ: 146
RUBEN SANCHEZ: 143
FELIPE ZELAIETA: 134'5


Lehenengo biak zuzenean sailkatu dira finalerdietan. Gainontzeko bertsolariek datozen bi kanporaketan berri izan arte itxaron beharko dute.

2. kanporaketa Oionen

Otsailaren 27an jokatu zen Oionen txapelketako bigarren kanporaketa. Arratsaldeko zortzietan zuten afarirako hitzordua jarrita eta bertan, Asier Otamendi, Andere Arriolabengoa, Alberto Martinez "Beitto", Xabi Igoa, Ander Solozabal eta Izar Mendiguren aritu ziren bertsotan, Idoia Beitiaren gidaritzapean, Arabar Errioxako sustriak errotzeko asmotan ●

EDUARDO ANITUA, MEDIKU ETA IKERTZAILEA:

*“Ikerketa etengabeko erronka da,
amaierarik ez duen erronka”*



armentiaiko eduardo
anitua ikerketa
eta formakuntza
institutua

UDAZ GEROZTIK ZABALIK DA ARMENTIAN EDUARDO ANITUA IKERKETA ETA FORMAKUNTZA INSTITUTUA. EDUARDO ANITUA (GASTEIZ, 1956) MEDIKU ETA IKERTZAILE OSPETSUAK SORTUA, BIRSORTZE TERAPIAN ERREFERENTZIA DA DAGOENEO ZENTRO BERRIA. AZKEN TEKNOLOGIA BERRITZAILEEKIN HORNITUTAKO INSTITUTUAK URTERO EHUNKA MEDIKU ERAKARRI NAHI DITU GURE HIRIRA, AHOZKO INPLANTOLOGIARI ETA BIRSORTZE TERAPIARI BURUZKO AZKEN AURRERAPENAK EZAGUTU ETA IKASTERA. DAGOENEO AURREIKUSPEN GUZTIAK GAINDITU EGIN DITU ZENTRO BERRIAK, HILABETE GUTXITAN ADITU ETA PROFESIONAL UGARIK BISITATU BAITUTE ARMENTIAKO EGOITZA.

t. edurne begiristain

a. edorta sanz & e.a. institutua

Anituak urtetako esperientzia du medikuntza birsortzailearen eremuan, eta batez ere odol plasmaren erabilera terapeutikoan. Orain arte bi tokitan garatu du ikerketa, Gasteizen bertan: San Antonio kalean duen hortz klinikan, eta Miñaoko Parke Teknologikoan duen BTIko (Biotechnology Institute) enpresan –bertako zuzendari zientifikoa da–. Enpresa horretan 10 urte daramatza bere lan-taldearekin ikerketa eta garapenean beharrean, batez ere zientziaren arlo bitan: aho eta aurpegi-masailetakoinplantologian eta medikuntza birsortzailean. BTI enpresa aitzindaria da Prestakin Hazte Faktoreetan Aberatsa deritzonaren teknologian (PRGF). Teknika horrek iraultza ekarri du ehunen orbaintzea azkartzearen alorrera.

Orain, Armentiaiko Institutu berriarekin, pauso berria eman du Anituak, klinika, formakuntza eta ikerketa toki berean elkartuta. Institutu berriaren nondik norakoak, eta bere ikerketa eremuaren xehetasunak azaldu dizkio GEUri Anitua doktoreak.

Zeure izena daraman Ikerkuntza eta formakuntza zentroa ireki berri duzu Armentian. Nolakoa izan da asmo handiko egitasmo hau martxan jartzeko prozesua? Zerk bultzatuta erabaki zenuen zentroa irekitzea?

Ikerkuntza eta Berrikuntzarekin (I+B) zerkusia duen egitasmo orok hedapen lana behar du ezinbestean. Izan ere, ezer

gutxirako balio du ikerketa, aurkikuntzak egiteak, aurrerapausoak emateak eta hobekuntzak lortzeko, ondoren ez badira besteekin partekatzen edota gizartearen esku jartzen. Horregatik, guretzat garrantzi handikoa da formakuntzarekin lotura duen guztia. San Antonio kaleko bulegoetan ere bazegoen formakuntza zentro bat, eta bertan eskaintzen genituen ikastaroak kalitate handikoak zirenez harrera handia izan zuten, eta tokia txiki geratu zitzaizgun. Hargatik erabaki dugu Armentiaiko zentro berriaren aldeko apustua egitea. Bertan eskaintzen dugun formakuntza kalitate handikoa da, eta, gainera, azken teknologiaz hornituta dago.

“**zentro hau goi mailako zentro berritzailea bilakatu dugu, ez bakarrik europa mailan, baita mundu mailan ere**

Pentsatzekoa da tamaina honetako egitasmo bat martxan jartzeko ahalegin handia egin behar izan duzula. Pozik lortutako emaitzarekin? Bete egin da zure ametsa?

Ametsa ez ezik, beharizan bat ere bete egin da. Klinika, ikerkuntza eta formakuntza toki berean elkartu ditugu, eta zentro hau goi mailako zentro berritzailea bilakatu dugu, ez bakarrik Europa mailan, baita mundu mailan ere.

Zein da Institutuarekin daukazu helburu nagusia? Erronkarik?

Ahozko inplantologian eta birsortze terapian erreferentzia bilakatu nahi dugu. Bertan burutzen diren jardura guztiak ere kalitate eredutzat hartzea da gure helburua.

Zentro berriaren helburuetako bat da urtean 800 mediku inguru erakartzea, patentatu duzun inplante, ahozko-errehabilitazio eta ehunen birsorketa sistema bertatik bertara ezagutu dezaten. Hala da, ezta?

Bai, hala zen. Eta hala zela diot, aurten helburu hori soberan gaindituko dugulako.

Gaur egun zenbat profesional daude zentroan lanean? Zein da euren egitekoa?

Une honetan gutxi gorabehera 70 lagun daude zentroan, alor desberdinetan lanean: birsorketa terapian, ikerkuntzan, klinikan, protesi laborategian, editorialean, formakuntzan eta bulegoetan ari dira lanean.

Dagoeneko hasi dira iristen medikuak Armentiaiko zentrorra. Nolakoa izaten ari da esperientzia? Gustura daude? Eta, zu, pozik?

Arestian esan dudana moduan, institutua ireki genuenetik profesional ugari etorri da, eta baieztatu dezaket gustura geratu direla. Formakuntza bukatutakoan betetzen dituzten inkestek islatzen dute gustura geratzen direla. Guretzat harro egoteko modukoa da hori, eta egunez egun hobetzen jarraitzeko indarra ematen digu.



Mundu osoko profesionalen joan-etorri garrantzitsua sortuko du Eduardo Anitua Institutuak Gasteizen. Beharrezkoa genuen halako egitasmo bat?

Hiri batean garatu eta eraikitzen den edozein proiektu berritzaile positiboa izaten da hiriaren irudiarentzat. Gasteiz bezalako hiri batean, eta ausartuko nintzateke esatera geurea bezalako herri batean, zoritxarrez ez dugu baliabiderik, ezta haztegi egokirik ere, gisa honetako proiektuek aurrera egin dezaten. Bisitari ugari erakartzeak hiria mapan kokatzeko lagungarri izan daiteke, baina ez soilik hiriburu turistikoko gisa, baita berrikuntza gune gisa ere.

“azpimarratu nahiko nuke goi mailako instalazioak izanda ere, horien gainetik egongo dela beti gure profesionalen lana



Puntako teknologiadun sistema informatikoa duzue Armentiaiko zentroan. Antzeko ezaugarriak dituen zentrorik ba al dago gure inguruan?

Geure instalazioen ahalmena, ekipamendua eta giza taldea aintzat hartzen baditugu, esan daiteke Armentiaiko zentroa nazioarteko erreferentzia dela. Hala ere, azpimarratu nahiko nuke goi mailako instalazioak izanda ere (ez nuke esango

bakarrak direla, baina bai bakarrenetakok), horien gainetik egongo dela beti gure profesionalen lana. Baliabide asko eduki daitezke, baina hori baino garrantzitsua goa da ongi prestatutako lan-taldea izatea, baliabide horiei onura ateratzeko.

Orain arte ikerkuntza lana Miñaoko parke teknologikoan duzun BTI enpresan egiten zenuten. Ikerketa





talde guztia Armentiarra igaro da orain? Nola banatu duzue lana?

Miñeon ahozko inplantologiarekin zerikusia duen guztia dago: azalera, elektronika, prototipaje zentroa, azterketa biomekanikoak eta ebakuntza-gela esperimentalak. Armentiarra joan den lan-taldearen egitekoa beste bat da: klinika aplikatuaren ikerketaz arduratuko da (bai ahozko inplantologian zein proba klinikotan), baita ehuningenieritzaz, genomikaz, proteomikaz eta zelula-terapien laborategiez ere.

“**egitasmo zirrargarria da, bizi-tza osorako egitasmoa da, orain arte tratamendurik ez zuten gaitzak hobetzeko eta kasu askotan aurreikusteko balio duelako**



Armentian graduondoko titulazioa eskaintzeko negozioazioetan zaudete EHUrekin. Akordioa lortzea espero duzu?

Ziur gaude ahozko-inplantologian eskaintzen dugun formakuntza goi mailakoa dela. Izan ere, duela 20 urte sortu nuen graduondoa Espainian ezaugarri horiekin martxan jarritako lehena izan zen. Harremana izan dugu unibertsitate askorekin eta egun horietako batzuekin ikerketa proiektuetan elkarrekin lan egiten dugu (Harvard eta Tufos-ekin Ameriketako Estatu Batuetan, Milan-ekin Italian...). Hortaz, gisa honetako lankidetzak ez zaizkigu arrotz egiten. Bi aldeentzat aberatsa da, gainera. EHUren kasuan, erabat ziur gaude lankidetzak posible izango dela etorkizun hurbil batean.



Goi mailako estomatologoa eta iker-tzailea zara. Zure lan-taldearekin batera PRGF sistema patentatu duzu, ehunaren birsortzerako teknika. Zeintzuk dira alor horretan erdietsi diren aurrerapauso garrantzitsuenak? Zein ekarpen egin dizkio teknika horrek ehunen birsotzeari?

Gaur gaurkoz oraindik barneratzen ari gara ireki berri dugun atea eskaintzen dituen aukerak izugarriak direla. Ikerketa talde askok gure teknika erabiltzen dute, eta gero eta erabilera handiagoa ematen ari zaio. Egitasmo zirrargarria da, bizitza osorako egitasmoa da, orain arte tratamendurik ez zuten gaitzak hobetzeko eta kasu askotan aurreikusteko balio duelako.

Zeintzuk dira teknika horren aplikazio eremuak?

Hasiera batean ahozko eta aurpegi-masailako ebakuntzetan hasi ginen erabiltzen, baina Mikel Sanchez medikua proiektuan parte hartzen hasi zenean, aplikazio eremua gihar eta tendoi lesioetara zabaltu genuen. Eta gaur egun teknika hori artrosian erabiltzen hasteko egitasmo liluragarririk batean murgilduta gaude. Lehen aipatu dudan moduan, proiektu hau bizia da, une oro garatzen dihoana. Eta aurrerapausoak ematen ari gara diabetesa duten gaixoen azalezko ultzeren tratamenduan, kalte baskularretan, aurpegiaren gazteago-tzean, eta oftamologian edota ebakuntza orokorretan ere erabiltzeko.

Nola egiten duzu medikuntza eta ikerketa lana uztartzeko?

Gauza biak bateragarriak direlako, eta hori horrela izatea ahalbidetzen duen profesional talde bikaina dudalako. Nire egoera pertsonalari dagokionez, posible egiten dut astean sei egun eta erdi, eta egunero 12 ordu lan eginez.

Zein egoeratan dago ikerkuntza Euskal Herrian? Asko dugu egiteko?

Baikorra naiz alde horretatik. Urte askotan haziak erein dira eta orain ereindakotik sortzen ari da. Ez da asko falta egiteko, dena dugu egiteko.

Duela gutxi arte medikuntzako produktua kanpotik ekartzen ziren, neurri handi batean. Zure enpresak, ordea, esportatu egiten ditu.

Uste dut garrantzi handikoa dela Europa mailan ahozko inplantologian dagoen enpresa garrantzitsuenetako bat Gasteizen egotea. Horrek esan nahi du gure fakturazioaren eta inbertsioaren %100a hemen geratzen dela, baita sortzen duen *know-how* guztia ere. Inportantea eta

onuragarria da, ez soilik Gasteiz hiria-entzat, herri guztia-entzat baizik.

“**niretzat garrantzitsuena eta liluragarriena da besteek jarraitu dezaketena bidea irekitzen jarraitzea, orain arte egindako lan guztiari jarraipena ematea**

Kontsulta pribatuarekin hasi zinen, eta zure baliabide ekonomiko eta pertsonalak erabilia, nazioartean sare zientifiko-enpresarial zabala eraiki duzu. Helburu profesionalak bete egin dituzula esan dezakegu?

Nire xede profesionalak duela urte asko lortu nituen. Ikerketa, ordea, etengabeko erronka da, amaierarik ez duen erronka. Niretzat garrantzitsuena eta liluragarriena da besteek jarraitu dezaketena bidea irekitzen jarraitzea, orain arte egindako lan guztiari jarraipena ematea ●





eguneko
menua



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA



**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

TREBIÑU SAGADOTEGIA
EGIN TXOTXI!
SAGARDOTEGIKO MENUA
ASTEBURUTAN IREKITA. DEITU AURRETIK
Trebiñuko ASKARTZAN 945244852 / 657736599

azkarprint
Imprenta / Inprimategia
Landazuri 7 - 945 23 30 01
GASTEIZ
♦ INPRIMATEGIA ♦

DIBUtec
Papertegi teknikoa
Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Eramun
Argazki - Estudioa
Heracio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02
Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! jatetxea
bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aitzogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"




Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza GASTEIZ

El Clarete
jatetxea



unai eta patxi fdz. de retana
zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874



KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

ARABAKO HERRI-INAUTERIAK

MOZORROEN ATZEAN MUNDU ZABALA

ARABAK INAUTERIEN
INGURUAN ASKO DAUKA
KONTATZEKO. GAUR EGUN
GUZTIZ LEGITIMATURIKO ETA
IZUGARRI ESTIMATUTAKO
OSPAKIZUN BAT IZAN ARREN,
INAUTERIEK ERREPRESIO
HANDIA JASAN DUTE
URTETAN. IZAN ERE, FRANCOK
DEBEKATU EGIN ZITUEN ETA
ONDORIOZ GALZORIAN EGON
ZIREN. TOLOSA DUGU
UDABERRI JAIAREN AITZAKIAZ
INAUTERIAK OSPATZEN
JARRAITU ZUEN HERRI
BAKARRA. HALA ETA GUZTIZ
ERE, DIKTADURAREN OSTEAN
HAINBAT TOKITAN PIXKANAKA
BERRESKURATUAK IZAN ZIREN.
GASTEIZEN ZEHAZKI INDARRA
ELKARTEARI SOR DIOGU EGUN
EZAGUTZEN DUGUN
MOZORROZ ETA MAGIAZ
BETERIKO JAI HAU. BESTETIK,
ARABA MAILAN ASKO DIRA
INAUTERIEN TRADIZIOARI
GOGOR EUSTEN DIOTEN
HERRIAK, ZAZPI
NABARMENTZEN DIRELARIK;
HURRENEZ HURREN,
ZUHATZU KUARTANGO,
ASPARRENAKO ILARDUIA,
EGINO ETA ANDOIN,
ZALDUONDO, KANPEZU ETA
SALCEDO. MURGIL GAITEZEN
GURE ARBASOEN USADIOETAN
BARRENA.



INAUTERIEN HIRU M-ak: MISTERIOTSUAK, MAGIKOAK ETA MITOLOGIKOAK

BELDURRAK, POZAK, MITOLOGIA, ERLIJIOA, JAIA, MAGIA, MISTERIOA... HAUEK GUZTIAK ETA BESTE HAINBAT ELEMENTU KOKTEL-ONTZI BATEAN SARTUZ GERO ETA ONDO NAHASTUZ GERO INAUTERIAK JAIOTZEN DIRA. OSPAKIZUN HONEK SEKRETU ANITZ EZKUTATZEN DITU ETA AZALARAZTEN SAIAITZEAN, GALDERAK ERANTZUNAK BAINO ASKOZ UGARIAGOAK DIRA. HAUXE DA BEHINTZAT **CARLOS ORTIZ DE URBINA** URKABUSTAIZKO APAIZAREN IRITZIA. INAUTERIAN ADITUA DUGU CARLOS ETA EUREN JATORRIAREN INGURUAN GALDETU DIOGUNEAN, HIPOTESI ANITZ DAUDELA ARGITU DIGU. "ASKOK UDABERRIAREN JAIOTZAREKIN LOTZEN DITUZTE, NATURAREN BERRITZE ETA BERPIZKUNDEAREKIN, BAITA LURRAREN EMANKORTASUNAREKIN ERE. PURIFIKAZIO ERRITO BAT DA".
ERRONKA MAHAI GAINEAN DAGO; ARGI DITZAGUN ERANTZUNIK GABEKO GALDERA HORIEK...

t. ane pedruzo a. edorta sanz & artxiboa

Zer dago Arabako inauterietako pertsonaien atzean?

Arabako herri gehienetan inauterietako pertsonaiek *porrero* izena hartzen dute. Oso bestelakoak dira eta batik bat landa eremuetan naturaren elementuak dituzte oinarri, animaliak gehienetan. Animalia bakoitzak baina, antzina bertute desberdinak zekartzan berarekin. Honela, zaldiaren zurdaz eginiko txanoak edo jotzeko gailuak, adibidez, emankortasunarekin erlazio zuzena dute eta horregatik emakumeak kolpatzen dira batez ere. Honez gain, porrero anitz animalien irudikapenak dira zuzenean. Zalduondon eta Zuhatsu Kuartangon esaterako, non hartza azaltzen den eta bigarren herrian berebiziko garrantzia duen. Izan ere, hartza animaliarik gurtuenetarikoa bat izan da, "gizakien arima eramaletzat jotzen baitzen, baita gizakiaren asabatza ere" hainbat tokitan.

Atsoa ere askotan agertzen den pertsonaia dugu. Honek itxura desberdina dauka inauterietan arabera, baina guztietan naturaren berpizkundera irudikatzen du, bera hiltzean natura berriaren atea irekiko baitira, "izaki berri bati egiten dio leku".



Gaitz guztien erruduntzat jotzen den pertsonaia askotan agertzen da Arabako inauterietan, zergatik?

Pertsonaia honek izen desberdinak izaten ditu herrien arabera, Markitos Zalduondon, Toribio Kanpezun, Felipe jauna Lermendan... baina bere patua beti berdina da; hiltzera kondenatua izatea. Horrela itota, lurperatuta, erreta edo putreak janda bukatzen du koitaduak. Halere, eraila izan aurretik epaia entzuteko eskubidea du eta orduan apaiz edo epaile batek herrian gertatutako zorigaitz guztien berri ematen du, elurteak, lehorteak, krisia, heriotzak... eta guztiak berari leporatzen dizkio. "Horrela jarduteak herriaren purifikazioan lagunduko zuela pentsatzen zuten gure arbasoek".

Dagoeneko giroaren garbiketaz ari garela, ezin dugu *Hautsaria* ahaztu, zeinak heritik barrena erraustak botatzen dituen espiritu txarrak usatzeko helburuarekin. Pertsonaia honek Zalduondon *Zenizeroa* delakoa du lagun-min, azken honen lana lurreko hausterreak jasotzea delarik. Garbiak dira gero Zalduondon!

Inauterietan gehiegikeriak onartuak izaten ziren, lapurketak, txantxak... guztiak balio zuen?

"Urteko epe bakoitzak baimen desberdinak dauzka eta inauteriak askatasun osoaren seinale ziren". Gizonezkoek emakumez janzteko onespina zuten, auzokideak zirikatu zitezkeen, baita boterea gaitzetsi ere, etxeetan lapurtzea zilegi zen, batez ere jabeak desatseginak zirenean... Etxeko txikienak ere askotan izutzen zituzten, horrela etorkizunerako prestakuntza bat ziurtatzen zietela uste baitzuten, helduak izatera iritsi arte. Inauterietan akatsek ere ez zuten garrantzirik. Hori dela eta, ohikoa da *potoloak* bezalako porreroak ikustea, ipurdi gizena edo konkorra gizako akatsak dauzkatenak. Inauteria mimo handiz prestatutako eraldia zen eta egun ere bada.

Inauteriak zaratatsuak dira oso, zer dela eta?

Espiritu txarrak uxatzea eta lurra esnatzeko deia bermatzea da zarata ateratzearen helburu nagusia. Honela, porrero askok zarata egiteko gailuak daramatzate eskuan. Adibide garbia Asparrenan daukagu, non *koloredunak* dauden, kolore askotako alkandora, zintzarriak, banda gorria eta zaldi iledun txanoa daramatzatenak eta, noski, matraka zaratatsu bat ere. Inguru berean ere, zehazki Andoin, Egino eta Ilarduiako hilerrietan, txalaparta jotzen dute hildakoen oroimenean eta euren babesa ziurtatzeko. Musikak oro har berebiziko garrantzia du jai honetan.

INAUTERIAK EGUTEGIAN

Inauteriek egutegian duten kokapena ulertzeko, historian kristautasunaren aurretiko eta ondorengo epeak ondo bereizi behar dira. Kristo aurretik, inauteriak negua eta udaberriaren arteko egunetan ospatzen ziren, natura berpizteko erritualaren forma hartzen zutelarik. Ondoren, kristautasunak jaiaren mugak are gehiago zehaztu zituen, bere hasiera Aste Santua baino 40 egun lehenago kokatuz, garizumaren aurretik. Horrela gaur egun, ostegun gizenak, etxeko txikiak ospakizunak alegia, inauterien etorreraz ohartarazten gaitu. Larunbatean jaiak hasten da eta asteartera arte irauten du, errauts asteazkenean inauteriak behin betiko agurtu behar ditugularik.



LANDA-INAUTERIAK, GIZAKIAK NATURAREKIN MANTENDUTAKO HARREMAN ESTUAREN ONDORIO

GAUR EGUN ARABAN OSPATZEN DIREN LANDA INAUTERIAK, AIPATURIKO HERRI BAKOITZEKO AUZOKIDEEK BERRESKURATU ZITUZTEN ZAHARREN ARTEAN ANTZINAKO INAUTERIEN INGURUKO TESTIGANTZAK BILDU OSTEAN. AURTEN GAINERA, ZAZPI HERRIEK KOORDINAKUNDE BAT ABIARAZI DUTE BERPIZTUTAKO JAIK EZAGUTZERA EMATEKO. **LURDES LEKUONA** ETA **ABETTO ORIBE** BERTAKO KIDE DITUGU ETA EUREK HURBILDU DIZKIGUTE HERRI BAKOITZEKO BITXIKERIAK...



ZUHATZU KUARTANGON AGATE DEUNA INAUTERIEN PARTAIDE

Kronologikoki inauteri hauek dira duela sei urtetik hona Araban ospatzen diren lehenak, Agate deuna ospakizunarekin uztartu direlarik. Bertako porreroek animalien larruak, zintzarriak eta mota askotariko kapelak daramatzate soinean eta aurpegia beltzez margotua. Pertsonaia guztien artetik hartza da aipagarriena, zeinak arabar petoa izanik patataz eginiko hortzak dauzkan. Honez gain, inauteri hauetan *Arrianoko amonak* irudikatzen du naturaren berpizte-

ari leku egingo dion neguaren bukaera. Atso hau Kuartangoko pertsonaiarik ospetsuena da. Inork ere ez du sekula ezagutu, baliteke inoiz bizi ez izana, baina haraneko biztanle guztiek entzun dute pertsonaia honen inguruko konturen bat. Arrianoko amonak porreroek herri osoa zeharkatu ondoren plazan biltzen direnean egiten du bere agerraldia, alkate-alkatesa eta senar-emazte bikote batekin batera. Orduan sua piztu eta ardo beroa banatzen da bertaratutakoen artean.





lurdes lekuona eta abetto oribe, arabako herri-inauterien koordinakundeko kideak

Carlos Ortiz de Urbinaren hausnarketak ederto borobiltzen du Inauteriak berreskuratzearren Araban gauzaturiko herri ekimena: "Inauteriak euskal kulturaren podiumean posturik gorenanean daude, magikoak dira, zergatia ondo jakin gabe gureak sentitzen ditugu, erroak finkatzen laguntzen digute, nortzuk garen ezagutzera hurbildu, arrazionaltasunetik at bidaia-tzera gonbidatzen gaituzte".



"Ilarduia, Eginok eta Andoinek inauteria berreskuratu dugu, atzo gureek ohi zuten antzera, guk gaur ere kaleak alaituko ditugu"

Hona hemen Asparrenako hiru herrixka hauetako inauterietarako aurre sortu den abestiaren leloa. Abettok ondo asko ezagutzen ditu hauek. Azaldu digunez, 70 urtez etenda egon ziren hiru herri hauetako inauteriak elkarren oso antzekoak ziren eta horregatik orain hiru urte jai bateratua abiaraztea erabaki zuten. Hauetan *Lasto gizona* da epaitua, zeina azken judizioaren aurretik herri batetik



bestera eramana izaten den. Ilarduia da porreroen lehen geltokia. Bertan egunari aurre egiteko bazkari bapoa egiten dute lehenik eta behin. Ondoren herriko hiru etxetara joaten dira eskatzera, eta horietako batean Bartolo izeneko astoa lapurtzen dute bere gainean Abettok "lastozko gorputza, zakuzko besoak, zapi gorria, abarkak eta txapeldun erraldoi ikaragarria" bezala deskribatzen duen pertsonaia eraman ahal izateko. Ondoren, Eginora joaten dira, bidetik Asparrenako dantza eginik. Bertan *Lasto gizona* arantzaz beteriko gurdi batera lekualdatua izaten da eta beste hiru etxetan eskatzen da berriz ere. Ilunabarrean jarraigoa Andoinera heltzen da, non berriz eskatu ostean plazara iritsi eta *Lasto gizona* makil batetik zintzilikatzen den. Ondoren, apaizak epaia irakurri eta *Lasto gizona* bolboraren laguntzaz lehortarazten dute. Orduan su bat pizten da eta porrero guztiak dantzan hasten dira, herrira hurbildutako jendea parte hartzera gonbidatuz.

ZALDUONDON MARKITOS PETXERO

Dagoeneko Zalduondoko inauteriak ezagutzeko unea heldu zaigu. Herri honetako inauteri tradizionalak 1892. urtean ospatu ziren azken aldiz eta Blas Arratibel artisauaren ekimenez berreskuratu ziren 1976. urtean. Hauetan *Markitos* da bidegabekeri guztien erantzulea, gizon dotorea zalantzarik gabe, txapela buruan, traje eta gorbata duna eta koloredun 13 arraultzez eginiko lepokoaren jabe. Lourdesek kontatu digunez, *Markitos* Lazarragako jauregitik atera eta asto baten gainean zeharkatzen ditu Zalduondoko kaleak. Ondoren makil batetik zintzilikatua izaten da eta arratsalde partean gainontzeko pertsonaiek ere pasioan laguntzen dute, euren artean bere gurasoak daudelarik. Hauek bereziak dira oso, izan ere, amak bizkar gainean eramaten du Markitosen aita eta biek batera inauterietako atsoa irudikatzen dute.

Itzulia amaitzean herri osoa enparantzian biltzen da eta bertan predikariak sermoia irakurri eta *Markitos* sutara kondenatzen du.



KANPEZUKO TORIBIO, MINGAINA BELTZ



Kanpezun 1981. urtean eman zieten ongietorria inauteriei, nahiz eta benetako bulkada Beta-garri kultur elkartearen eskutik heldu lau urte beranduago. Herri honek duen berezitasuna, inauteriak egun bakar batera mugatu beharrean, ostegun gizenetik asteartera arte ospatzen direla da.

Era honetan, ondoren askari bat egiteko helburuz, gaztetxoek txorizo eta arrautza bila irteten dira ostegunean.

Igandean berriz, katxiruloak (honela izendatzen dira porreroak bertan) ateratzen dira. Hauek mozorroa otoitz deia entzun arte daramate soinean, ondoren kentzen dutelarik dantzari ekinez. Asteartean berriz, *Toribio* azaltzen da. Honek lastoa du bere itxuraren oinarri eta oin batean zapata bat eta bestean abarketa bat daramatza. Herriko gazteek mingaina ateratzeko eskatzen diote *Toribiori* baina honek uko egiten dio proposamenari beltza baitauka, izan ere, bera baita Kanpezuko gaitz guztien erruduna. Iradoki daitekeen moduan, *Toribiok* ere dagokion epaia entzun behar du eta askan itota hiltzera zigortua izaten da.

SALCEDON PUTREAK BORRERO

Denboran 1991. urtera arte egin behar dugu atzera Salcedoko inauterien berpizkundeaz hitz egiten hasteko. Prozesu hartan herriko auzokide gehienek hartu zuten parte Salcedoko Lagunak elkartearen bitartez. Lantarongo herri honetan, *Porretero* da protagonista nagusia, zakuz eginiko jantziarekin atondutako panpina, zeina plazako ezkian lotzen den eta makilekin kolpatzen den. Gainera, kaleetatik zehar ere eramaten da herriko jendeak iseka egiten diezaion.



Itzuli horretan *Porretero* epaituko duten konjuratzaileak eta putreek ere hartzen dute parte eta gainontzeko porreroak etxex etxe ibiltzen dira, afaria prestatzeko janari eta edari eske. *Porretero*aren patua teilatu batean putreek janda hiltzea da, oso auzokide maltzurra izan baita.




“Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik” hegan egin dezagun Gasteizera!

Gasteizek, 1979. urtean berreskuratu zituen inauteriak, Indarra kultur elkarteak hainbat gazteren ekimenez. Hauek inauterien jarraitzaileak izanik Tolosara joan ohi ziren urtero eta horregatik suspertze prozesuari ekiteko beharra sumatu zuten. Jon Fernandez Indarrako dantzarietako bat da eta pausoz pauso kontatu digu istorioa. “Lehenik eta behin orduko gobernu zibilari baimena eskatu zitzaion eta honek bi baldintza ezarri zituen; mozorroek ezin zuten ez eliza ezta militarrekin zerikusirik izan”. Baldintzak onarturik, dagoeneko desagertu den San Prudentzio kaleko Frontón Vitoriano delakoan berbena bat abiarazi zuten, baita konpartsen desfilea prestatu ere. Martxa hartua zegoela eta bi urtera, Udalak inauteriak antolatzeke ardura bere egin zuen, Indarrak konpartsa batean parte hartzera mugatu zuelarik bere ekimena. Dena den, 2005. urtean inauteri herrikoia goak egitea otu zitzaion Indarrakoei, “bertako gauza bat nahi genuen, euskalduna”, argitzen digu Jonek. Horrela *Godaleta* sortu zuten. Azaitz Unanue dantzariak ikusizun honen zehaztasunak hurbildu dizkigu. Antza denez, *Godalet* hitzak Zuberoako euskaraz edalontzia esan nahi du. Beraz, *Godalet*an Indarrako kideek Zuberoako maskarada beltzetako *txerreroa*, *katuzaina*, *zamalzaina*, *kantiniera* eta *enseinaria* bezala jantzi eta *Godalet* dantza egiten zuten, alegia edalontzi baten gainean egiten den dantza. Gainera, tartean Euskal Herriko beste hainbat inauteritako pertsonaia eta dantzak ere aurkezten zituzten, besteak beste, Lantzekoak, Luzaidekoak...

Aurten baina, proposamena desberdina izan da eta Indarrak ‘Sasi guztien gainetik’ izenpean kaleratu ditu inauteriak. Oraingoan, euskal mitologiako pertsonaien bitartez girotu dute Gasteizko erdigunea, euskal dantzak, musika tresnak eta musika tradizionala oinarri izanik. Horrela, Buruileria plaza *Mari* eta lamien agerraldiaren lekuko izan zen. Eskoriatza-Eskibel enparantzak bere aldetik *Basajaun* eta artzainak ezagutzeko aukera izan zuen eta Andre Maria Zuriaren plazak iratxoak eta *Gaueko*. Bestetik, Galtzagorriek eta *Tartalok* arkupeak izan zituzten babesleku, nekazariak eta *Sugar*-ek probintzia plaza nahiago izan zutelarik. Baina zalantzarik gabe Aihotz plazak bizi izan zuen momenturik ederrena, bertan *Aker* eta sorginak azaldu baitziren gainontzeko pertsonaia guztiak lagunduta. “O-tik hasi dugun proiektu bat izan da non sormena eta inplikazioa izan diren nagusi”, Azaitzek maitekiro deskribatzen du burututako ekimena eta Jonek gehiago gaineratzen du, “musika eta dantzak guk geuk konposatu eta sortu ditugu, baita jantzi guztiak prestatu ere”. Datorren urteari begira, euskal jeinuei Gasteizera bueltatzeko deia luzatzea baino ez zaigu gelditzen:

Betor Mari! Euskal Herriko andere zaindari!
Betor Aker! Sorgin eta jeinuen gidari!

Iruña-Veleia: seguru zaudete?



ORAINDIK GAI HONEK NOBELA, POLIZIA-FILM ETA MISTERIO-SAIOETARAKO PAGOTXA EDERRA EMANGO DU. AZAROAREN 19AN ARABAKO FORU ALDUNDIAK GRAFITO «EZ OHIKOAK» AZTERTZEKO IZENDATURIKO BATZORDE ZIENTIFIKOAK EPAIA EMAN ZUEN: FALTSUAK DIRA, INOLAKO ZALANTZARIK GABE! ARKEOLOGOEK, EPIGRAFISTEK ETA FILOLOGOEK MILA ETA BAT ZANTZU AURKEZTU ZUTEN EBAZPENA FROGATZEKO. BATZORDEKO KIMIKARIAREN TXOSTENA ERE BAT ZETORREN FUNTSEAN AURREKOEKIN (BERE EBAZPENA OSO GARRANTZITSUA ZEN, DENBORAK ILDOETAN SORTZEN DUEN PATINARIK AGERTZEN DEN ESAN BEHAR ZUELAKO), NAHIZ ETA ONARTZEN ZUEN ZENBAIT PIEZATAKO PATINA ZAHARRA ETA JARRAIKORRA ZELA.

2009-02-17 / erabili.com
Juan Martin Elexpuru

Arratsaldean estamentu politikoak ofizialdu zuen zientifikoak goizean erabakitakoa. Lorena Lopez de la Calle Kultura Diputatuak erabakitzat eman zuen auzia. Handik gutxira, fiskalaren esku jarriko zuen kasua, Eliseo Gil, ordura arteko indusketa arduraduna, auzibidean jarri ala ez erabaki zezan.

Harri eta zur geratu ginen denok. Filtrazioetatik bagenekien iritzi ezberdinak zeudela grafitoen benetakotasunaz, baina ez genuen uste epaia hain bizkorra eta hain borobila izango zenik. Txostenak eta materialen argazkiak argitaratzea eskatu zen, eta azkenik, urtarila ezker, edozeinek kontsultatzeke moduan daude (www.alava.net).

Orduak eta orduak pasa daitezke argazkiak ikusten eta batzuen eta besteen txostenak irakurtzen. Azkenekoz ezarritakoak «defentsarenak» dira, Gil eta Filloy indusketa-arduradunek eta Cerdan fisikariak (laborategiko analisisen koordinatzailea) Batzordeari emandako erantzunak. Batzordeko Julio Nuñez arkeologoak «ezinezkotzat» jotzen

dituen gauza gehienak «posible» direla azaltzen du Filloy-k, froga dokumental ugari aurkeztuz. Cerdanek, berriz, Batzordeko kimikari Madariagaren arinkeria salatzen du. Azaltzen duenez, 64 pieza «dudazko», tartean euskarazko batzuk, bidali ziren Frantziako laborategi batera, eta, analisi kimikoen arabera, ia guztien patina zaharra eta jarraikorra omen da. Hiru edo lau bakarrik dira zalan-tzazkoak.

Gilek 2007an indusketa utzi zuten hiru arkeologoei erantzuten die. Prentsaren aurrean agertu dira duela gutxi eta, Gilen taldearen lan egiteko era gogor kritikatu ondoren, diote hasieratik hartu zutela susmo txarra eta horregatik utzi zutela lana. Gilek, lan metodologia defendatu ondoren, erantzuten die esanez taldeko beste guztien euforia konpartitu zutela grafitoak agertu eta aurkeztu zirenean, eta horren lekuko 2006ko udazkenean hiruretako batek Hala Bedi irratia eskainitako elkarriketa. Ulrike Fritz, Alemaniako Tübingengo unibertsitateko egiptologoaren txostena ere agertu berri da, eta bertan posibletzat ematen ditu hieroglifo tankerakoak eta Nefertiti edo Ramses bezalako izenak.

Illarregi arkeologoak Gilen taldearen indusketametodoa eta jarduna egokia izan dela baieztatzen du.

Aipamen berezia merezi du euskal ostrakez Lakarra filologoak egindako txostenak. Goi-mailako estilo literarioa erabiliz, lezio magistral bat ematen du euskararen historiaz, eta grafia, fonetika, sintaxia, morfologia... ikuspegitik idazkunak ezinezkoak direla baieztatzen du. Halako baten, iruzurgileen perfilaz ironizatzen du; idazkunen ergatibo eza dela eta, iruzkin hau egiten du: «Resultaría, por tanto, mucho más verosímil que estas frases fueran debidas no a vascos inergativos del III sino a pseudo-euskaldunberris de fines del s. XX o comienzos del XXI que no estuvieran muy atentos al tratar el tema en clase». Baina txostenaren azken atalean, beste norabait zuzentzen ditu susmoak: *Coda sobre posible fecha y fuente de la falsificación de los ostracas eusquéricos veleynenses*, titulatzeko du. Bere ustez, faltsutzaileek derrigor ezagutu behar zituzten protoeuskaran adituak diren filologoek azken ondorioak, bereak esate baterako. Idazkunetako elementu batzuk bat datozelako azken hipotesiekin. Ondorio horietako batzuk Luis Nuñezek 2003an argitaratu zuen euskararen historiari buruzko liburuan biltzen dira, baina beste batzuk oso jende gutxi ezagutzen dituen apunte pribatueta daude. Honetan oinarrituta, Lakarra susmatzen du 2004a izan litekeela iruzurraren urtea.

Hilabete bat igaro da txostenak eta argazkiak argitaratu zirela, baina ia inork ez du ahorik zabaldu. Aurrekari hauekin, ea nor den ezer esatera ausartzen den tontoharroa. Nori sinetsi, dena faltsua dela dioen Batzordeari edo dena benetakoa dela dioen indusketa-taldeari? Badirudi iritzi publikoak eta euskararen munduak ontzat emanda daukela Batzordearen eta politikarien epaia.

Zer galdu gutxi dudanez, neure ustea azalduko dut. Kontrako frogak erabakigarriak plazaratzen ez diren bitartean, zalan-tzekin, baina benetakoak direla pentsatzen jarraituko dut; gehienak behintzat. Baliteke batzuk faltsuak izatea, norbaitek aurkituntzak edo aurkitzaileak izorratzeko berriki ipinitakoak. Edo eta hitzak edo zeinuak gehituta egotea benetako ostraken gainean. Hala balitz, identifikatu egin beharko dira pieza horiek, baina ezin dira horregatik denak txar-ztat eman.

Ehunka ostraka dira, horietako berrogei inguru euskarazko hitz eta esaldiekin. Batzuen argazkiak ikustean, «hau ezin da berria izan» datorkizu burura. Zahar itxura handia dute, letrak higatuta, ia desagertuta daude askotan, oso zaila dirudi faltsutzea. Laborategi analisek ere, kontatzen digutenez, letra-ildoetako patinaren zahartasuna baieztatu dute kasu askotan. Gainera, zertarako faltsutu hainbeste pieza, nahasmena sortzeko banaka batzuk nahikoa direnean?

Euskarazkoetara etorrira, ulertzekoa da filologoek harridura, gauza asko ez baitatzen bat espero zitekeenarekin. Baina zer dakigu garai hartan egiten zen euskaraz? Ez gehiegi. Gainera, baliteke ostraken idazleak ikasleak edo gutxi eskolatuak izatea, batzuen ustez *paedagogium* bat zelako gehienak agertu diren lekua, eta ez litzaiguke hain harrigarri egin behar ortografia, konkordantzia eta era guztietako akatsak agertzea. Ez dut testuez jarduteko lekurik, baina niri ez zaizkit hain ezinezkoak begitantzen. Apunte bat bakarrik: NAIA agertzen da, eta NAHIA beharko lukeela diote filologoek, aspirazioa bizirik zegoelako garai hartan. Baina ez ote da aNAIA? Ikusita NEBA, REBA, LABA, SEBA, SABA ere agertzen direla? Gehiago nahi duenak sustatu.com orrian aurkituko du (*Ikusi egileak egin duen testu azterketa*).

Nazioarteko batzorde zientifiko bat izen- da dadila dena berraztertzeko, ari da ozen esaten Gil, Iruña-Oka Argitu Dezagun Taldea eta beste batzuk bezalaxe. Eta azkar, gaia usteldu edo lehertu baino lehen.

Ez dakit inoren iritzirik kolokan jarriko zuen idatzi honek, baina ezer esaten hasi aurretik komeni da ordu batzuk ematea alava.net orriko txostenak eta argazkiak begiratzen.

(JUAN MARTIN ELEXPUKURU ARREGLI idazlea da)
Estreinakoz *Berria* egunkarian argitaratua (2009-2-15)


EGUR


- Zureko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goiaín Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)


**eusko
alkartasuna**
www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea


**Gazte
Abertzaleak**
www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI



HOU PITXU, HOU!

TESTUA ETA ARGAZKIAK: PATXI URANGA

URTARRILAREN 11AN ABIATU ZIREN MASKARADAK ZUBEROAN. AURTEN, BARKOXEKO GAZTEEK HARTU DUTE MASKARADAK PRESTATU ETA HERRIZ HERRI ERAMATEKO ARDURA. 48 LAGUNEKO KOADRILA OSATUTA, BATETIK BESTERA ARIKO DIRA APIRILAREN 12A ARTE. EGUN HORRETAN ESKAINIKO DUTE AZKENEKO SAIOA, ETXEAN BERTAN, BARKOXEN. GAZTEZULO HORIETAKO BATEAN IZAN ZEN, EZPEIZEN. HEMEN DUZUE IKUSITAKOAREN IRUDI SORTA.



EUSKAL OSTRAKA Iruña-veleiaiko euskarazko grafitiak

Idoia Filloy Nieva
Eliseo Gil Zubillaga

Artikulu honen xedea 2005 eta 2006. urteetan Iruña-Veleian aurkitutako grafitiak, euskarazko idazkunak dituztenak, modu txukun eta antolatu batean aurkeztea da.

Izan ere, orain ere, nahiko modu nahasian eman da berorien berri, eta nahasmen hori argi islatu da prentsara isuri diren berrietan edota Interneteko zenbait formatu digitaletan agertutako datuetan. Ikerketen aurretiazko egoerak kontu honetan ikuspegi global baten falta ekarri du, eta arazo horri konponbidea aurkitzen ez dute lagundu berriki egindako zenbait ekarpen akademikok¹. Ildo beretik, gure iritziz, Arabako Foru Aldundiko Batzordeari aurkeztutako azterlanetan funtsezkoa den zerbait falta da: idazkunen katalogoa. Horren guztiaren erakusgarri garbia ikus daiteke Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean bertan, izan ere, inolako erreferentziarik egin gabe, kasu zehatz batzuei buruzko zenbait txosten eta argazki dosier biltzen baitira bertan².

Artikulu honetan, grafiti horien inbentarioa aurkezten dugu, eta horietako bakoitza zein euskarriren gainean eginda dagoen adierazi dugu; horrekin batera, transkribapenerako³ gure proposamena eta bakoitzari dagokion argazkia⁴ ere txertatu ditugu. Horretaz gain, material horietatik zeini egin zaizkien patinen jarraitutasun analisiak ere adierazten da. Grafitoak indusketa sektoreen edo eremuen arabera ordenatu eta multzokatu dira, eta horietako bakoitzean, kontuan hartu da bakoitza zer testuinguru estratigrafikotan aurkitu den; horrekin batera, dataziarako proposamena ere adierazi dugu, sekuentzia estratigrafikoak eta bakoitzari lotutako materialek ematen dituzten datuetan oinarrituta. Badirudi aurkikuntzak beren testuinguruan egokiro kokatzeko guretzat oinarritzekoak diren datu horiek guztiek beren garrantzia galdu dutela, horien kronologiaren inguruan sortutako eztabaiden anabasan.

Beraz, Iruña-Veleiako erregistro estratigrafikoan kokatutako materialak direla hartuko dugu abiapuntutzat⁵, eta horko estratu bakoitzak bere proposamen kronologikoa du, dagokion sekuentzian eta atxikitako materialetan oinarrituta. Horixe izan zen grafitoen datazioa proposatzeko baliagarri izan zitzaigun datazio oinarria, estratu horietako bakoitzean gelditu zirenean grafito horietako bakoitza eginda zegoela ulertuz. Patinen jarraitutasun analitikak azken alderdi hori erakutsiko luke, hain zuzen; izan ere, objektuaren gainazalean eta ebakien hondoan patinaren formazioa jarraitua zela azaltzen baitzen; hau da, ez zegoela hausturik erakusten zen, eta grafitoak gerora egindakoak baziren, haustura hori nabarmendu egingo zen. Sistematikoki, ez zaio jaramonik egin guk landutako dokumentazio arkeologikoari eta analitikoari gai honetan garatu diren txosten guztietan, eta grafitoak testuingururik gabeko material gisa hartu dira, inoiz inola horrela jokatu behar ez denean.

Grafitoak grabatuta dauden euskarriak antzinakoak dira, salbuespenik gabe. Baina, berriro diogu, ez da euskarria grafitoak datatzen duena, horietako bakoitza aurkitu zen unitate estratigrafikoa baizik.

Beste kontu bat da grafitoen edukiena. Horretan datza arazoa. Horregatik aurkeztu nahi dugu hemen materialen sorta hau, lehenengo eta behin, eta orain gure lanak dituen muga guztiak aintzat hartuta, sorta hori, bere osotasunean, ordenatuta eta modu sistematikoa, ikerketaren esku utzi behar dugula uste dugulako; horixe baita gai zehatz hau kritikoki aztertzeke eta sakon eta modu zientifikoa gaiari buruz eztabaidatzeko eman beharreko lehen pausoa.

Funtsean, honako planteamendu hauen bidez laburbil daitezke grafitiei buruzko jarrerak:

a) Berriki egindako faltsifikazioak dira: horixe da, esate baterako, Lakarra⁶ irakasleak eta beste autore batzuek hartu duten jarrera. Euskararen historian hauek egin duten ibilbide profesionala errespetatzen dugu, nola ez, baina Veleiako grafitien autoretzari buruz plazaratu dituzten

aieruak horixe besterik ez dira, aieruak, eta gure aldetik, diotena egiaztatzen duen proba edo zantzurik txikiena ere ez dugu.

b) Erregistro estratigrafikoak eta garatutako analitikek emandako datuekin bat datozen adierazpenak dira: hau da, erromatar garaitik berant antzinako bitartean kokatutako datetan koka daitezke. Jarrera horri eusten diogu guk, eman dugun dokumentazioa oinarri hartuta⁷.

c) Antzinako testuen aurrean gaude, baina ez datoz bat euskarriren kronologiarekin eta erregistro estratigrafikotik datorren proposamen historikoarekin. Azken-azkenetan, Knörr irakasleak aukera horri eutsiko zion, izan ere, Veleiako grafitietarako kokapen kronologikoa Goi Erdi Aroan zehaz-tuko baitzuen, Veleiako gotzain-tzaren jarduerarekin lotuz⁸.

Laburbilduz, Veleian aurrez aurre dugun arazoa, gure iritziz, zera da: gure ekarpena ez dator bat une historiko horretan gauzen egoeraz filologikoki eta kulturaliki egin zen berreraikuntzarekin. Guztiok ezagututako kanpokoak eta arrotzak diren arazoienatik ikerketa prozesua etenda gelditu izanak ez dio horri guztiari lagundu, egindako zundaketa estratigrafikoek edota industen hasitako sektoreek emandako datuak egiaztatzeke utziz.

Beste ikertzaile batzuek adierazitakoaren ildotik⁹, uste dugu posible dela hizkuntza batzuk oso azkar eta beste batzuk poliki aldatzea -gaur egun ez da ezagutzen fenomeno horren mekanismoa- Agian euskara beste hizkuntza batzuk baino askoz polikiago aldatu da (parametro sintaktikoen mailan, bederen), baina, begien bistakoa denez, interesatzen zaizkigun garaietako idatzi askorik, ezta hizkuntza alderagarrien arloan non berreraiki ere, ez duen hizkuntza batean nekez zehatz daiteke hori.

Iruña/Veleian aurkitutako grafitoak sektoreka ordenatu ditugu, eta sektoreen barnean, barruti eta unitate estratigrafikoaren arabera; eta hauek kronologikoki ordenatu dira, antzinakotik berrienera¹⁰.

¹ Esan gabe doa horiek guztiak gure ikerketa prozesutik aparteko aurrerapenak izan direla, garai batean zenbaiten eskuetan jarritako konfiantza hautsi dutenak. Vervi gratia: <http://www.scribd.com/doc/8207655/Las-Armas-de-La-Filologia>

² <http://www.alava.net/publicar/Veleia>

³ Argi utzi nahi dugu arkeologoak garela, eta ez epigrafiako profesionalak. Hala eta guztiz ere, gure esperientziak argi erakutsi digu testu berak zenbait interpretazio izan ditzakeela (instrumenta edo etxeetako tresnen hondakinen gaineko grafitien izaerari eta neurriari lotutako zailtasunak aintzat hartuta). Beraz, borondate onez, geure irakurketa proposatzen dugu.

⁴ Zoritxarrez, gure ikerketak bat-batean amaitu beharrak argazkien katalogoa guk nahi bezain sistematikoa izatea eragotzi du, eta horregatik, kasu gutxi batzuetan dokumentu hori falta da.

⁵ Puntu honetan, askotan egin izan zaizkigun galderei erantzunez, hori beste modu batera izan zitekeela susmatzeko inolako daturik ez dugula esan behar dugu. Kanpotik edo barrutik bilatutako konspirazio baten biktima izan garen, kasu horretan, hori beste proba mota batzuekin erakutsi beharko litzatekeen aukera da.

⁶ http://www.alava.net/publicar/Informes/Veleia_Inf_07.pdf

⁷ http://www.alava.net/publicar/Informes/Veleia_Inf_15.pdf. Knörr irakasle zenak ere bere garaian iritzi horixe azaldu zuen.

⁸ Kontu honetaz izandako elkarriketaren arabera. Askotan alboratu izan den Veleiako gotzaintzari buruz, ikusi, adibidez, 881eko erreferentzia, "Crónica Albeldense" lanean Veleiako gotzain Álvaroi buruz biltzen dena. Gómez Moreno, M. (arg.) (1932): "Crónica Albeldense", BRAH 100, 605; Bartolomé, B. (koord.) (2004): *Historia de las Diócesis españolas 20 (Iglesias de Burgos, Osma-Soria y Santander)*, BAC, Madril, 16-17. Álvaro gotzain honi, 888ko urriaren 20an hil zenari, legokioke Bolibarren aurkitutako hilarria. Balbarda, G. (1974): *Historia crítica de Vizcaya y sus fueros*, Bilbo, 171-172. Beraz, gaur egun Araba izenez ezagutzen dugun lurraldeko izen ezaguneko lehen gotzaina litzateke. Veleia (Ravennako anonimoak Belegia aldaera erabiltzen du) Alfonsito I.ak (739-757) Islam hispaniarraren aurka prebentzio izaeraz egindako operazioen testuinguruan suntsitu eta desegindako Veleia alabense bera litzateke; halaxe ageri da Alfonsito III.aren kronikan: Ubieto, A. (arg.) (1961): *Crónica de Alfonso III*, Valentzia, 38-39. or.

⁹ http://www.diariovasco.com/prensa/20061123/opinion/veleia-axioma-cambio-linguistico_20061123.html

¹⁰ Lehen ere adierazi dugunez, proposamen hauen "egoera" ondo ulertu behar da, bereziki, ikerketak bidean geratutako indusketa guneei dagokienez. Dena den, eskura ditugun datuak berrikusi ditugu, eta oraingoz, honako aurrerakin hau aurkezten dugu.

6. SEKTOREA

13. BARRUTIA

6202. U.E.

Kanal bateko beheko aldeko betelaneko estratua (13. barrutia). Proposatutako kronologia: K.o. II. mendearen amaiera. Euskarazko grafito bakar bat aurkitu zen bertan, eta beste bi ere aurkitu ziren, "apartekotzat" hartu ezin direnak, zeramika gainean eginak.

13401 zk. Beirazko ontzi baten gorputzaren zati baten gainean egindako grafitoa. Kanpoaldeko gainazalean grabatutakoa.

**NIIVR
AMIIT()**

Emakumezko irudia duen marrazkia

(gorputzaren goiko zatiari dagokio, bular aldearen beheko zati artekoa. Ilea luze eta solte, eta aurpegiko ezaugarriak nahiko azaletik irudikatuta. Irribarrez ageri da).



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia

8. BARRUTIA

6188 U.E.

Lurzorua prestaketako estratua. Proposatutako kronologia: K.o. II. mende bukaera-III. mendearen 1. erdia. 3 grafito aurkitu dira bertan, ziurrenik euskaraz.

13411 zk. Beirazko ontzi baten gorputzaren zati baten gainean egindako 2 grafito dira.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

**ATA, AMA
NIIVRII G**

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

**EL NIIV
VIIRG**

Irakurketak ez dira oso seguruak, zaila baita bi aldeak grabatuta dituen beira zati garden batean irakurtzea. Argazkian ere ezin dira testuak ondo bereizi.



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua


13412 zk. Hispaniar sigillatazko zati baten ertzeko grafitoa; zehazki, ontzi luze bati dagokio (TSH 2).

ZVIINII

Irakurketa ez da segurua. Ez dago argazkirik.

13413 zk. Beirazko ontzi baten hondoaren zati baten gainean egindako grafitoa. Barrualdeko gainazalean grabatutakoa (argazkiaren erdialdean ikus daiteke).

NII



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

6076 U.E.

Erroizte estratua lurzorua gainean. Proposatutako kronologia: K.o. III. mende amaiera-IV.aren hasiera. Estratu honetarako k-14 datazioaren arabera 4 datazio ditugu¹¹. Estratuan guztira 29 pieza aurkitu ziren grafitoekin (bi gainazal grabatuta dituztenak bakartzat hartuta), guztiak ere aparteko izaera dutenak. Euskarazko testua dutenak albo batera utzita -ondoren adierazten dira- horietako asko grafito figuratiboak eta ebanjelioko mezua duten latinezko testuak dira, izaera judu-kristaua dutenak. Grafito horietako gehienak, 20 zehazki, adreilu zatien gainean eginda daude; 8, zeramika zatien gainean, eta bat beira gainean. Ikus ditzagun euskarazko testua duten grafitoak.

13362 zk. Zeramikazko mortero baten ertzaren zati baten gainean idatzitako 2 grafito dira. Pieza honetan patina jarraitutasuna aztertu zen.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

SAMVIILL, "YAVHII" FILI

(Yavhe alde banatan hiru marra konbergente dituela agertzen da, ziurrenik, jainkotasunaren seinale).



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

- Barnealdeko gainazalerako grafitoa:
IN NOMIINI PAT?¹²
ATARI IZAN¹³



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13363 zk. Adreilu zati baten gaineko grafitoa. Ertzean grabatua.

YAVHII
GIIVRII ATA¹⁴



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13364 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gaineko grafitoa. Kanpoaldeko gainazalean grabatua. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

GIIVRII "ATA" ZVTAN
RIIINV "IIISVS" TA
IIGIN BADI ZVR



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13367 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gaineko grafitoa. Kanpoaldeko gainazalean grabatua.

IAN
TA
IIDAN
DIINOS

("S" ertzean dago, eta horregatik, argazkian ez da ia ikusten)



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

¹¹ Karbonizatutako zurezko laginen gainean:

- GrN-30491 (IR 14509C zk.): 2115 ± 20 BP (13C neurketan oinarritutako zuzenketa barne). Ondoriozko datazioa: K.a. 165 ± 20. 2 sigma kalibrazioa % 95: K.a. 196-189/K.a. 70-57.
- GrN-30237 (IR 10585 zk.): 2080 ± 20 BP (13C neurketan oinarritutako zuzenketa barne). Ondoriozko datazioa: K.a. 130 ± 20. 2 sigma kalibrazioa % 95: K.a. 164-126/K.a. 121-46.
- GrN-30236 (IR 6292 zk.): 2065 ± 25 BP (13C neurketan oinarritutako zuzenketa barne). Ondoriozko datazioa: K.a. 115 ± 25. 2 sigma kalibrazioa % 95: K.a. 165-36/K.a. 26-21/K.a. 9-1

Ikus daitekeenez, zurak K.a. II. mendetik I. mendera bitarteko datak adierazten dizkigu. Egur zaharren erabilerari erantzuten diola horrek interpretatu dugu, eraikinaren egitura gisa, erromatar garaian birziklatutakoak.

Hezur laginen gainean:

- GrA-33069 (IR 13479 zk.): 1660 ± 50 BP (13C neurketan oinarritutako zuzenketa barne). Ondoriozko datazioa: K.o. 290 ± 50. 2 sigma kalibrazioa % 95: K.o. 256-305/K.o. 313-469/K.o. 479-535.

Proposatutako tarteek onartzen dute proposamen estratigrafikoa eta atxikitako materialen proposamen tipologikoa: K.o. III. mende bukaera - IV. mende hasiera; dena den, aukera kronologikoa VI. mendera arte zabaltzeko aukera ematen dute.

¹² "T"-ren atzetik gutxienez letra bat dago, baina soilik angeludun forma bat bereizten da.

¹³ "N" ez dago osorik.

¹⁴ "A" ez dago osorik.

13368 zk. Hispaniar sigillatazko hondo zati baten gaineko bi grafito dira. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

**IIISVS, IOSHII ATA
TAMIRIAN AMA**



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

**DIINOS
ZVRI
NAIA**



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13369 zk. Sukaldeko zeramika arrunteko zati baten gainean egindako grafitoa. Kanpoaldeko gainazalean grabatutakoa. Oso pieza ganbila. Horregatik, zenbait argazki aurkezten ditugu, ezinezkoa baita argazki bakar batean osorik ikustea.

**SAMVIL, MARIO
VIILIIAN JAVN**



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua.
Grafitoaren ezkerrekoa



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua.
Grafitoaren eskuinaldea



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua.
Bi argazkien muntaketa

13361 zk. Adreilu zati baten gaineko grafitoa, bi aldeetatik idatzia, baina lerroka irakurketa jarraitua duena. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- 1. aurpegia:

**NIRII
ATA, ZII
YAVH
TA15**



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

15 "A" ez dago osorik, eta agian hiru marra konbergenterekin osatuko zen.

- 2. aurpegia:

II
II^{***}AT



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua



Horrela, segidan irakurrita, hauxe litzateke:

NIIRII
ATA, ZII II
(ziurrenik hemen akatsa dago)
YAVHII AT TA

13371 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati batean egindako bi grafito dira. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

GIIVRII ATA ZVTAN GIIVRII

(zirkulu formako konposizioa da, eta erdia *****ATA***** ageri da)



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

*****YAVHII*****
ZVTAN
IZANA

Ez dago barnealdeko gainazaleko grafitoaren argazkirik.

6180. U.E.

Hobi baten betelana. Proposatutako kronologia: K.o. III. mende amaiera, IV. mendearen lehen erdia, nahiz eta materialaren zati handi bat zaharragoa zen; izan ere, hobi honek goi inperioko maileri eragin baitzien, eta betelan horretan sartu baitziren. Bigarren mailako kokapenean legokeen materiala litzateke, beraz. Grafitoekiko materiala K.o. II. mende amaierako mailetakotzat jotzen dugu, eta erromatar garaiko behe inperioko hobi hori zulatu zenean eragina jasango zuten. Betelan honetan 8 grafito aurkitu ziren guztira, bat izan ezik gainerako guztiak zeramika gainean egindakoak; bakar hori *pondus* edo buztinezko ehungailu-pisu baten gainean grabatutakoa da. "Aparteko izaerarik" ez duten bik izan ezik, gainerako guztiek euskarazko testuak zituzten.

13393 zk. Hispaniar sigillatazko ontzi batetik ebakitako fitxa baten gainean egindako grafitoa. Kanpoaldeko gainazalean grabatutakoa. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

ATA-AMA
NIIBA-RIIBA
SIIBA-SABA
MONA



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13394 zk. Hispaniar sigillatazko hondo baten gainean egindako bi grafito dira. Ziurrenik pitxer bati dagokio. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

MARCVS LAGVN

(zirkulu formako konposizioa, eraztun formako oinaren gainean)

IAII (erdian)

Ez dago kanpoaldeko gainazaleko grafitoaren argazkirik.

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

III NIIV NAIA, NIIVRI


("neu" hitzeko "N"-ak erdian eta gorantz soilik marra bertikal bat du)
[zirkulu formako konposizioa da]



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13395 zk. *Pondus* baten zatian (buztinezko ehungailu-pisua) egindako bi grafito dira.

- Albo batean: **ILAR
O**



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

- Oinarrian: **LVRA
SVA**



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13396 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gainean egindako bi grafito dira. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

**AI II,I edo N II,I
I, LIIIO,
GI, MAI
IIDA, IAN
SVT I?**¹⁶

(zalantzak irakurketan, zarakarragatik)



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

**IIDA
IAN
LO,**


Ez dago barnealdeko gainazalaren argazkirik.

13397 zk. Hispaniar sigillatazko zati baten gainean egindako bi grafito dira. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

**BIETA, ZVRI, AROS
VRDIN, GORY**

ANA, BIIR?¹⁷ ("N"-ak erdian eta gorantz soilik marra bertikal bat du)



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

**NIIVRII
ZIIVRII
III V?**¹⁸



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

13398 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gainean egindako bi grafito dira. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

BIITI



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

¹⁶ "I" izan daiteke, baina ez dago osorik.

¹⁷ "R" izan daiteke, baina ez dago osorik.

¹⁸ "V" izan daiteke, baina ez dago osorik.

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

IINTV

NIVRII

CODRII edo **CORDII** (irakurketa ez da segurua)

RII



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

28. ZUNDAKETA

28009 U.E.

Erroizte estratua. Proposatutako kronologia: K.o. II. mendearen 2. erdia. 3 grafito aurkitu ziren, guztiak zeramika gainean eta aparteko izaera dutenak; eta horietatik bik euskarazko testuak dituzte.

13711 zk. Hispaniar sigillatazko plater baten ertzeko grafitoa, zehazki, TSH 4 bati dagokio. Gainazalak aldatuta ageri ditu, eta ezpainean errausteen aztarnak sumatzen dira. Goiko aldean ertza biribil batez apainduta dago, barrualdekoan ageri da grafitoa. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

IIRII TA SV



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

13958 zk. Hispaniar sigillatazko plater baten ertzeko grafitoa, zehazki, TSH 4 bati dagokio. Gainazalak aldatuta ageri ditu. Goiko aldean ertza biribil batez apainduta dago, barrualdekoan ageri da grafitoa.

NIIVR CORDV MAI



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

28010 U.E.

Erroizte estratua aurrekoaren azpian. Proposatutako kronologia: K.o. II. mendearen bigarren erdia. K14 bidez lagin baten datazioa dugu¹⁹. Euskaraz grafito bakarra kokatu zen.

13709 zk. Hispaniar sigillatazko plater baten ertzean eta gorputzean egindako hiru grafito dira; zehazki, TSH 4 bati dagokio. Gainazalak aldatuta ageri ditu. Goiko aldean ertza biribil batez apainduta dago, eta grafitoa horren gainean ageri da, baina baita ertzaren beheko aldean eta, honen azpian, gorputzaren kanpoko aldean ere. Patina jarraitutasuna aztertu zen pieza honetan.

- Ezpain gaineko grafitoa: **IIAII**
- Ezpain azpiko grafitoa: **VNI** ("V"-tik marra zehar bat ateratzen da).
- Gorputzaren kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

NVIIRII AT

ZIIT BI

NII

Ez dago ezpainaren gaineko grafitoaren argazkirik.



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

¹⁹ Karbonizatutako zuraren gaineko lagina: GrN-30891 (IR 13639 zk.: 1790 ± 20 BP (13C neurketan oinarritutako zuzenketa barne). Ondoriozko datazioa: K.o. 160 ± 20. 2 sigma kalibrazioa % 95: K.o. 137-199/K.o. 207-259/K.o. 297-321. Proposatutako tarteeek onartzen dute proposamen estratigrafikoa eta atxikitako materialen proposamen tipologikoa: K.o. II. mendea; dena den, aukera kronologikoa II-IV. mendeetara zabaltzeko aukera ere ematen dute

32. ZUNDAKETA

32005-A U.E.


Lurzoruaren prestaketa estratua. Proposatutako kronologia: K.o. II. mende amaiera, III. mendearen hasiera. Bi grafito ziren bertan euskaraz.

16362 zk. Hispaniar sigillatazko zati baten gainean egindako bi grafito dira.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

TV, LAIKII

BA I (atzean X itxurako irudi bat dago)



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

NIIV IILOSI

CFΩΣ (zalantzak irakurketan)

NIIBA I



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16363 zk. Hispaniar sigillatazko hispaniarreko zati baten gainean egindako bi grafito dira.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

IVI (edo NII) ELOSI ΦΩΣI

TA (NIIT)RII (ez da ikusten zarakarragatik)

AMA



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

- Barnealdeko gainazaleko grafitoa:

MIRTO

(OVSTA) ("O"-tik marra zehar bat irteten da)

TA

Ez dago barnealdeko gainazaleko grafitoaren argazkirik. Irakurketak ez dira oso seguruak.

32005-C U.E.

Lurzoruaren prestaketa estratua, aurretik okupatutako lurzoru baten gainean kokatua. Proposatutako kronologia: K.o. II. mende amaiera-III. mendearen hasiera. 19 grafito aurkitu ziren zeramika gainean. Horietatik, hamaseik aparteko izaera dute, eta euskarazko testuak dituzte ondoren ageri direnek. Aparteko izaera duten gainerako grafitoek izaera figuratiboa dute.

16364 zk. Zeramika arrunt pigmentatuzko zati baten gaineko grafitoa. Barrualdeko gainazalean grabatutakoa.

NIIV VIIIIIAN

GORI BISI NA,



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16365 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gainean egindako bi grafito dira.

- Barrualdeko gainazaleko grafitoa:

NIIV LAIKI

(ηΛΛΟΣ) NA,

XI VRTII TV,

VIIIIIAN

GORI BISI TA

ES TA



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa:

VIIIIII NO

VVA, BANA

OSO V POLI

TA, NIIV

RE ATA

ARAINA

ARRAPA²⁰



Testuak jarraitua dela dirudi, lehenengo barrualdeko aurpegikoa eta, gero, kanpokoa.

Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16366 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gainean egindako grafitoa.

**NIIV LAIKII TA
VIILIIIAN GORI**




Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15910 zk. Hispaniar sigillatazko zati baten gaineko grafitoa; ziurrenik, TSH 36 baten gorputza da.

**NIIVRII
AMA, RO
MAN
ILTA, CIS
TIANA**

Testuaren ezkerretara, **gurutziltzatua buruz behera** ageri duen irudia.



IRUNA 15910

Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15912 zk. Hispaniar sigillatazko katilu baten ertzeko grafitoa; zehazki, ezpain lodiko TSH 8 bati dagokio. Kanpoko gainazalean grabatuta dago.

**NIIVRII ATA
GAV ILTA
NIIVRII AM²¹**



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15916 zk. Hispaniar sigillatazko estalki baten ertzeko grafitoa. Barrualdeko gainazalean grabatutakoa.

**NIIVRII
ATA**


Testuaren ezkerretara, **gurutziltzatua**ren irudia, alde banatan hiru marra konbergente dituen.



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15917 zk. Hispaniar sigillatazko zati baten gainean egindako grafitoa, zehazki, TSH 37 katilu bat da, kanpoaldean zirkuluak dituen. Grafitoa barrualdean dago grabatuta.

**NIIV MI
TA RIIBA
II LABA**



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15920 zk. Biltegitratze zeramikako zati baten gainean egindako grafitoa. Kanpoaldeko gainazalean grabatutakoa.

NIIV XII

VRT(...) TV, III (hiru puntu (...)) ageri diren tokian, testu idatzia egongo zen, ziurrenik "II", baina zarakar geruza lodi baten azpian dago)

RIIBA TV, NIIV

CII (...) (hiru puntu (...)) ageri diren tokian, testu idatzia egongo zen, baina zarakar geruza lodi baten azpian dago)



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

20 "A" ez dago osorik.

21 "M" ez dago osorik.

15921 zk. Zeramika arrunt pigmentatuzko pitxer zati baten gainean egindako grafitoa. Barrualdeko gainazalean grabatua.

VIIII
IAN OSO
LAGVN,
MARCVS
N



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15922 zk. Mahairako zeramika arrunteko pitxer zati baten gainean egindako grafitoa. Barrualdeko gainazalean grabatua.

NIIV
CORNII
ESKON



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15923 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gainean egindako bi grafito dira; nahiko horma mehekoa da.

- Kanpoaldeko gainazaleko grafitoa: **marraskia, plano bat dirudi.**



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

- Barrualdeko gainazaleko grafitoa:

MIRIA
AMA
IIT XII



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15925 zk. Mahairako zeramika arrunteko zati baten gainean egindako grafitoa.

NIIV XII VR
NIIVRII AM²²



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

47. ZUNDAKETA

47002 U.E.


Lurzoruaren prestaketa estratua. Proposatutako kronologia: K.o. II. mendearen erdialdea. Aparteko izaerako grafito bakarra aurkitu zen bertan euskaraz, adreilu baten gainean grabatua.

14469 zk. Lauza adreilu laukizuzen oso baten gainean egindako grafitoa.

Bide baten plano moduko baten gainean, zailtasun handiz, honako hau irakur daiteke:

VIIII NOVVA VIIII GORI

eta ezin zehaztuzko beste marra batzuk ere baditu. Grafito hau Arabako Foru Aldundiko Zaharberrikuntza Zerbitzuak prozesatu zuen osorik.



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia

²² "M" ez dago osorik.

105. ZUNDAKETA

105003 U.E.

Hileta-tegi bati dagokion unitate estratigrafikoa, gizaki heldu baten ehorzketa baten ondokoa. Proposatutako kronologia: K.o. V. mendea. Hileta-tegiaren elementuen artean, ehortzita gizakiaren beheko eskeleto apendikularren gainean, berant aroko hispaniar sigillatazko plater bat aurkitu zen, euskarazko testua zuena. Plateraren ondoan beirazko edalontzi bat eta burdinazko xixel bat ere aurkitu ziren. Oinen inguruan, burdinazko *clavi caligae* edo oinetakoentzatxetak aurkitu ziren. Ehorzketatik²³ gizakiaren beheko zatia soilik gorde da, hileta-tegia ia kalterik gabe duela, eta hau ehorzteko erabilitako zurezko kutxa armatzen zuten burdineriak (ertz-babesak eta iltzeak) ere gorde dira.

15656 zk. Berant aroko hispaniar sigillatazko plater handi baten gaineko grafitoa; TSHT 77 erakoa (edota, zehazkiago, Paz 83b). Beronen barnealdeko gainazalean grabatuta.

**IAN
JAN edo VAN ZUTA**

Hileta-tegi bat denez, plateraren indusketaren sekuentzia eskaintzen dugu hemen, euskarazko grafitoa plater horretan aurkitu baitzen garbiketa prozesuan. Grafitoa duen zatiaren argazkia ere aurkezten da, baina honen irakurketa egiaztatu egin beharko litzateke grafitoa osorik garbitu ondoren; AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzuaren esku dago.

Lehenengo argazki hauetan, plater handi bat ikus daiteke aurkitu zen unean, aurkitu zen tokian bertan. Gainazalean lur mordoa duela itsatsita ikus daiteke. Burdinazko xixel baten eta beirazko edalontzi baten ondoan kokatua, edalontzitik soilik ertza ikus badaiteke ere (argazkian biak ezkerretara).



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia

Burdinazko xixela eta platera altxatu ondoren, ehorzketatik gordetako zatiaren argazkia; berorien aztarna argi ikus daiteke lurrian. Gizakiaren tibien gainean zegoen. Eskuinetara (ezkerretara argazkian) beirazko edalontzia ikus daiteke (aurreko argazkietan soilik ertza ikusten zitzaion, gainerako zatia platerak estaltzen baitzuen).



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia

Beirazko edalontzia altxatu ondoren ehorzketatik gordetako zatiaren argazkia. Zangoen artean, oraindik zeramikazko plater handiaren aztarna ikus daiteke.



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia


²³ Anekdotak modura, ehorzketa hau eta ondoan zituen objektuak iraileko goiz batez aurkitu zirela esan behar da; eguerdia baino lehen altxatu zen, zenbait pertsonak zaindu zuten bazkalorduan eta, arratsaldeko lehen orduan eta zenbait lekuko bertan zirela, euskarazko idazkuna agertu zen, prozesatzerakoan; une horretan jarduera hura eten egin zen eta AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzuari entregatu zitzaion.

Ehorzketarako erabiliko zen zurezko kaxaren egiturari eutsiko zioten burdineriak ikusi daitezke argazkian. Burdineria horiek (hilkutxaren beheko zatiaren burdinazko ertz-babesak eta iltzeak) gorpuaren hezur hondakinak altxatu ondoren aurkitu ziren, tokian bertan.



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia

Argazki honetan, plater zatia ikusi daiteke, grafitoarekin.



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia

Fotomuntaketa, platera bertan dela. Beronen gainean, grafitoa duen zatia ezarri da, garbitu ondoren, eta gorritz adierazi da.



Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektuko argazkia

PROSPEKZIOA

15129 zk. Hispaniar sigillatazko hondoa duen zati baten gaineko grafitoa. Gorputzaren beheko aldean, kanpoaldeko gainazalean grabatua, eraztun formako oinaren ingurua, ia oinik ez badu ere.

IRI



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15147 zk. Hispaniar sigillatazko zati baten gaineko grafitoa. Gorputzaren kanpoaldeko gainazalean grabatua. Pieza honetan patina jarraitutasuna aztertu zen.

VRDIN

X

ISAR



Argazkia: Quintas. Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

15204 zk. Hispaniar sigillatazko hondoa duen zati baten gaineko grafitoa. Oinarrian du grabatua.

NIIV



Argazkia. AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

MARRAZO LAPURRA



New York hiriko poliziak hogeita hamar urteko gizonezko bat atxilotu du... marrazo txiki bat lapurtu izana leporatuta! Salaketaren arabera, tipoa maskotak saltzen dituzten denda batera sartu zen, marrazoa jaka azpian gorde eta, disimulu handiz, alde egin zuen. Baina ez hori bakarrik. Egun batzuk geroago, Aquarium batera sartu eta aurrez lapurtutako kreditu txartel batekin aingira bat erosten saiatu zen. Ene... hainbeste komeria arrain zopa bat egiteko!

ZAKILA... ZAST!

Emazte ekuatoriar batek senarra zakila gabe utzi du, dirudienez, jeloskorraldi bat izan eta gero. Ez nolanahikoa, bistan denez. Emakumeak Deysi izena, du eta aurretzean txiza egiteko beste bide batzuk erabiliko beharko dituen gizagaixoak, berriz, Octavio. Gertaerak Lorenna Bobbit-en afera ekarri digu gogora, 1993. urtean bikotea lukainka gabe utzi zuen estatubatuar ezagunaren kasua, alegia.



300.000

dolar ordaindu ditu pertsona batek beste baten bizimoduaren truke. Ebay-n jazo da, interneteko enkantegune ezagunean. Saltzailea, Ian Usher izeneko morroia: nazka-nazka eginda zegoen bere bizimoduarekin, eta dena enkantean jartzea erabaki zuen. Erosleak Usherren etxea, autoa eta lagunak (azken hau ikusi beharko, noski) eskuratuko ditu. Hamaika ez, 300.000 ikusteko jaioak gara!



146.468

langabe zeuden urtarrilean Hego Euskal Herrian, INEMek emandako datuen arabera: Bizkaian 60.314, Nafarroan 36.375, Gipuzkoan 33.070 eta Araban 16.709. Guztira, 2008ko amaieran baino 12.875 langabe gehiago. Eta hau, Bidasoaz bestaldeko datuen faltan. Eta hori, bankuak iazko irabazien berri ematen ari zaizkigun bitartean. Zenbat diruzale... eta zenbat langabetu!


2009ko

agenda digital




hila 12 eguna 24 ezabatu gorde X

Sartu **GAZTEZULO.COM** webgunean eta jaitsi ezazu zure ordenagailura





★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behe • 945252631



PARRAI TABERNA
Egueditan, asteleneetik ostiralea
JANTOKI BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33



25 ARTEPAN
1983-2008 Victoria - Gasteiz
Jesus Guridi, 2
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.
945 068 888
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA
harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Jose Luis GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe • 01005 GASTEIZ
Tfno./fax: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30



**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
• Helduentzat • Dantza
• Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

**Euskadik
behar zaitu**



**EAJ
PNV**



Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net



Errege atea, 9 - GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



Madalena kalea, 2
TI: 945 13 27 20



Jantziak
San Antonio, 11 • TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • TI. 945 15 53 39



Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

MARTXO GEZURTI... GAUR EURI, BIHAR EGUZKI

t./a. naroa cuesta

Euritakoa etxean uzteko momentua noiz helduko zain gaude; putzuak noizbait desagertuko ote diren galdezka. Negu latza igaro duguna. Nolanahi ere, udaberria iristear dago eta negu gogorriari agur esateko ordua heldu da dagoeneko. Euriteak, elurteak, uholdeak... izan dira aurten nagusi Euskal Herrian, zikloi eta guzti izan dugu gurean. Bitxia aurtengo negua, benetan. Natura kontrolaezina den heinean, klima ere gure eragin eremutik at dago. Aldiz, gure bizitzan eragina du eguraldiak. Eguzki izpien argia aprobeztatzuz kalera irten da GEU gai honen inguruan galdezka... badaezpada, euritakoa ahaztu barik, noski.

- Zertan du eragina eguraldiak zure eguneroko bizitzan?
- Gasteizko klima gustuko duzu? Urtarorik gustukoena?
- Zer deritzozu klima aldaketari?



ITSASO MANSILLA, ERIZAINA

- Eguraldiak gure eguneroko planetan eragina du. Eguraldi txarrekin edozer gauza egiteko gogo gutxiago dago.
- Gasteizko uda dut gogoko. Ez du bero gehiegirik egiten eta nahi duzun guztia egiteko aukera dago.
- Azkenaldi honetan garrantzi gehiegi ematen zaiola uste dut.

ERIKA LATASA, KAZETARIA



- Gasteizen aste bakar batean eguraldia guztiz alda daiteke, eta eguraldiarekin batera gure planak. Zer jantzi eta arratsaldean zer egin...; esate baterako, eguzkia irteten bada ez naiz zinemara joaten.
- Gasteizko klima egunen arabera gustatzen zait. Udazkena da gehien disfrutatzen dudana urtaroa. Euri pixka bat egiten badu ez zait inporta baina nahiago dut aterkirik ez irekitzea.
- Klima aldaketari buruz hitz egin behar dugu, derrigorrez. Badakigu klima ziklikoa dela baina ez dugu aldaketaren eragina ezagutzen. Ez dakigu noiz iritsiko den eta nolako aldaketak ekarriko dituen gure bizimoduan.



KOLDO LEITZA, TOPOGRAFIA IKASLEA

- Leitzakoa naiz eta elurrak, adibidez, klasera etortzeko oztopoak jarri dizkit aurten. Bestetik, kirola egiteko orduan hotzak ez du laguntzen.
- Gasteizko eguraldia... "Siberia- Gasteiz" deritzote, ezta? Uda da nahiago dudana urtaroa, baina, ez naiz udan Gasteizen egoten.
- Klima aldaketa... nik oraingoz ez dut nabaritu, hala ere, garrantzia dauka.

idazleen zutabea

URRUNEKO GUTUNONTZIAK

t. katixa agirre



Imajinatu Erasmus beka batekin zaudela Ingalaterrako hiri txiki batean, eta bat-batean, zure postontzian, karrerako lehenengo urtean zure irakasle izandako bati zuzenduriko gutun bat topatzen duzula. Edonor zur eta lur uzteko modukoa, ezta?

Ba horixe bera gertatu zaio kazetaritza irakasle bati, berriki. Berari zuzenduta ez dagoen eskutitz bat postontzian. Hartzailearen izena ezaguna zaio, hala ere. Eta azkenik konturatu da, buruari pare bat buelta eman ostean: "hau ez al zen ba lehenengo mailan Publizitate irakasle izan nuen hura?"

Irakasle ohi horrekin kontaktuan jartzea erabaki du, arakatu du Interneten, lortu du irakaslearekin kontaktu modua, Facebook sareari esker, eta mezu bat idatzi dio, gutunaren afera kontatuz.

Neu ere geratu naiz zur eta lur irakasle honen mezua jaso dudanean. Lehenengo mailan izan nuen irakasle gisa, eta orain, laugarren mailan dagoelarik, nire destino berean dago, nire postontzia erabiliz, nire esperientziak (edo antzekoak) bizitzan. Hori suertea berea!

Berehala erantzun diot, esanez baietz, berak suposatu bezala, ni ere Erasmus beka batekin egon nintzela leku horretan bertan, laugarren mailan nengoanean hain zuzen ere, eta antza denez egoitza berean hartu dugula ostatua. Gutun hori zertaz zihoan galdetu diot gero, kuriositatez beterik (gutun bat niretzat, zazpi urteren bueltan?), baina berak erantzun dit ez dakiela, berarentzat ez zela konturatuta, berehala itzuli zuela (nik ez nuke horrelakorik egingo, baina tira).

Kointzidentzia txiki bat baino ez da, baina grazia handia egin dit. Gutuna trenbide konpainiaren propaganda edo antzeko kalamatrika baino ez zela izango kontuan hartuta ere, polita da zu dagoeneko ez zauden tokian oraindik gutunak jasotzen dituzula jakitea. Ingalaterrako hiri horretatik ez naizela guztiz joan gogorarazi dit. Eta hala da, dudarik gabe●

EUSKARAZKO FILM LABURREN EMANALDIA GASTEIZEN

**MARTXOAK 24 ASTEARTEA, MONTEHERMOSO KULTURUNEAN
GEU ELKARTEA & TOPAGUNEAREN ESKUTIK**

GEU ELKARTEAK EUSKARAZKO FILM LABURREN EMANALDIA ANTOLATUKO DU LAUGARREN ALDIZ GASTEIZEN. MARTXOAREN 24AN 19:30EAN MONTEHERMOSO KULTURUNEAN IKUSGAI IZANGO DITUGU DOAN AZKENENGO URTEETAN EUSKAL HERRIAN EKOIZTUTAKO KALITATEZKO ZORTZI FILM LABUR. ORDUBETE INGURUKO IRAUPENA IZANGO DU EMANALDIAK ETA OSTEAN, ZUZENDARIETAKO BATEKIN SOLASALDIAN ARITZEKO AUKERA IZANGO DUGU.

t. ainhoa arriaga a. topagunea

Euskararen normalizazioa helburu nagusitzat hartuta, euskararen erabilerrako gune berriak sortzean datza, besteak beste, GEUren lana. Euskaraz gozatu, sentitu, sortu, trukatu... nahi dugu gasteiztarrok eta horren adierazgarri, urte hauetan, film laburren emanaldiak izan duen

arrakasta izugarria. Ane Muñoz, Asier Altuna, Koldo Almandoz, John Andueza, Iñaki Beraetxe eta Gentzane Agirre zuzendarien lanak ikusgai izan dira beste askoren artean azken emanaldiotan.

Aurten ere, ezagunak egingo zaizkigun zuzendarien laburrak ikusiko ditugu, eta baita euskarazko ikus-entzunezkoen sortzaile hasi berrienak ere:



VI. Zinea Euskaraz Film laburren Zirkuitua

Kabia Eider Rodríguez, Nagore Ansoaena, Garazi Rodríguez, Egoitz Sanchez, Garazi Sanchez, Maialen Sukunza eta Amaia Uribe 8'	Egiatik gezurra Ostegunaren afaria zure kontu taldea: Ander Odriozola, Iñaki Andonegi eta Gorkem Rubio 3'57"
Lo bakarrik Iban del Campo Uribarrena 14'	Poema baten irakurketa Euskaral Herrian KBI, Xabier Irujo eta Karlos Ertz 12'
Musika Asier Uribe eta San Martin 4'	P.D. Ondo ibili PuntutopArte Produzioak taldea: Yera Sánchez, Xabier Zapirain, Maite Leizaola, Iñaki Zapirain, Muxi Lopez eta Garazi Urdemplette 2'45"
Berde Jose Luis Barredo, Iñigo Garcia 8'40"	Bankuaren lapurreta Iñigo Aranbarri, Olatz Arriola-Bengoa, Kimetiz Blanco, Txabier Fernandez, J. asier Larrañaga, Txabier Larrañaga eta Josu Martinez

LO BAKARRIK

2008 (14')
IBAN DEL CAMPO URIBARRENA



Kazetaritzan lizentziatua dugu LO BAKARRIK filmaren zuzendaria, Sormenezko Dokumentalean masterduna eta Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko irakaslea. Bere azken lanen artean 'Un tal Eusebi' eta 'Dirty Martin' dokumentalak daude.

LO BAKARRIKek, insomnioak jotako emakume baten istorioa kontatzen du, lo egiten lagunduko dion zerbait lortzearen edozer egiteko prest agertuko den emakumearen istorioa.





MUSIKA

**2007 (4')
ASIER URBIETA
SAN MARTIN**

Zuzendari lagun-tzaile bezala eskarmentu handikoa da Asier Urbieta, tarte-telebistarako gidoilari ibiltzen delarik. 'Larzabal' (2003), 'Arco Iris' (2005) eta 'Pim pam pum' dira bere aurreko lanak, nazioarteko hainbat jaialditan sarituak edo aukeratuak izan direnak: Islandia, Alemania, Hungaria, Frantzia, Italia, Grezia, AEB, Bolivia, Txile, Argentina, Kolonia...

Honakoan, Gasteizen aurkeztuko duen lana MUSIKA filma izango da. Errespetuaren ikasketari erreparatu-ko dio: "haur batek miresmenaren bitartez errespetua zer den ikasiko" baitu.



EGIATIK GEZURREZKO BIZITZARA

**2008 (3' 57")
OSTEGUNEAN AFARIA ZURE KONTU TALDEA:
ANDER ODRIÓZOLA, IÑAKI ANDONEGI ETA GERMAN RUBIO**

Bilboko Amatau TB piratan ezagutu zuten elkar Iñakik eta Anderrek. Sasoi bertsuan Germanek Workoholics egitasmoa jarri zuen martxan eta horrela bildu ziren hiru zuzendariak 2008ko Kameratoian parte hartzeko ideiarekin. EGIATIK GEZURREZKO BIZITZARA lanak Kameratoia 08ko lehen saria irabazi zuen. Aipatzekoa da, egile bakoitzak bere aldetik, hainbat lan irabazi dituela ikus-entzunezko lanengatik.

EGIATIK GEZURREZKO BIZITZARA filmak, bere patuari azalpena aurkitu nahian dabilen gaztearen istorioa kontatzen du. Gazteak, egia aurkitzeko lotu-rak bilatuko ditu.



BERDE

**2007 (8' 40")
JOSE LUIS BARREDO, IÑIGO GAR-
CIA**

Zinegintzarako zaletasunak elkartu zituen bi zuzendari hauek, ekoiztutako azken lanak, 'Andarika, kilker, eta emakumeei buruzko gogoe-tak' (2008) eta 'Putz' (2008) dituztelarik.

BERDE film laburra Bilboko Zorrozaurre auzoan grabatu zuten 2006ko aben-duan, muntaketa 2008ko martxoa aldera amaitu eta ordutik hainbat jaialditan aur-keztu dute, besteak beste: Almeria en Corto, Radiocity Valencia, Zinebi, Eibarko Laburren Jaialdia, Amurrio Begibistan, Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileran eta Fotogramas aldizkariako film laburren lehiaketan.

Filmaren girotzea, kotxean suertatzen da, bikote bat lagunengatik afari batera doala.



POEMA BATEN IRAKURKETA EUSKAL HERRIAN

**2008 (12')
IKB: XABIER IÑARRAIRAEGI
ETA KARLOS ERIZ**

Xabier eta Karlos, Informazioa Komunikazioa Bideoz, 1994an sortutako produktorearen partaideak dira. Errepor-taiak eta iragarkiak landu dituzte gehien-bat; besteak beste, azken lanen artean 'Galeusca: gogoa zubi' dokumentala (2006), 'Heldu' erreportaia-dokumenta-la (2007), 'Elorrio denon artean 2088-2018' (2008) eta 2009ko Korrika 16ren 'Ongi etorri lagun' bideoklipa ditugu.

Torturaren Aurkako Taldeak ekoiztutako sormenezko lana da POEMA BATEN IRAKURKETA EUSKAL HERRIAN. "Ezer ez da aldatu. Gorputza mingarria da; jan egin behar du, lo egin behar du, arnasa hartu". Horrela hasten da Wislawa Symborska idaz-le poloniarrek idatzitako poema, eta horrela ere, hasten dira irakurtzen azken hamarkadetan tor-turak jasan dituzten hainbat euskal herritar.



KABIA

2007 (8')

EIDER RODRIGUEZ, NAGORE AROZENA, GARAZI RODRIGUEZ, EGOITZ SANCHEZ, GARAZI SANCHEZ, MAIALEN SUKUNZA, AMAIA URIBE

Egile talde honek unibertsitatean ezagutu zuen elkar eta ikus-entzunezko komunikazioa ikasten zeudela sortu zuten euren azken film labur hau: KABIA. 'Bunkerra', 'Olatuekin batera', eta 'Ximurak' mikrodokumentalak ditugu taldearen aurreko lanak.

KABIA filma bakardadearen perspektiba batez mintzo da. Bakardadearen sentimenduari aurre egiteko premiarekin pertsona perfektuaren bila dabilenaz, hutsunea beteko duen norbaiten bila dabilenaz.



FILM LABURREN ZIRKUITUA 2009. MARTXOAK 5 - APIRILAK 8 TOPAGUNEAREN ESKUTIK

Topagunea-k, Euskara Elkartearen Federazioak, Euskarazko Film Laburren Zirkuitua Euskal Herri osoan abiarazten duen 6. urtea da aurtengoa. Euskara elkartearen helburuekin bat egiten duen proiektua da, euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa. Federazioko partaide ziren hainbat elkarte euskarazko film laburren hedapenerako egitasmo bateratua sortzea proposatu zuten bere garaian, egitasmoari forma eman, eta hortik aurrera hasi ziren lanean. Urtean zehar, besteak beste, film laburren aukeraketan dihardute, eta emanaldia osotua dagoenean tokian tokiko euskarazko elkartei zirkuituan parte hartzeko proposamena luzatzen zaie, euren lan eremuetan antolatzaile lanak egin ditzaten.

Aurten, lehenengoz, Euskal Herriatik aterako da zirkuitua, izan ere, Erroma, Bartzelona, Paris, Londres eta Shanghaiko Euskal Etxetara ere iritsiko baita.

Martxoa

EGUNA	ORDUA	HERRIA	TOKIA	ANTOLATZAILEA
09/03/05	21:00	Erroma	Officine Pigneto	Ass. Euskara-Roma
09/03/06	19:30	Azkoitia	Kultur Etxea	Maxixatzen
09/03/06	19:30	Urnieta	Sarobe Kulturgunea	Iñistorra-Larramendi
09/03/06	22:00	Usurbil	Sutegi Kultur Etxea	Noaia
09/03/07	19:30	Bartzelona	Euskal Etxea	Bartzelonako E.E
09/03/11	19:30	Erandio	Josu Murueta KE	Berbots
09/03/11	20:00	Deustua	Bidarte Auzo Etxea	Berbaizu
09/03/12	19:00	Aretxabaleta	Udaletxe Zaharra	Loramendi
09/03/12	19:30	Altsasu	Iortia Kultur Gunea	Kimia
09/03/12	19:30	Andoain	Bastero Kulturgunea	Manuel Larramendi
09/03/12	19:30	Laudio	Basalarria Elkarte	Basalarria
09/03/12	21:00	Lasarte-Oria	Jalgi Kafe Antzokia	Tiakun
09/03/13	19:30	Bergara	Zabalotegi aretoa	Jardun
09/03/13	20:00	Artziniega	Anbulatorioa	Hogekitalau
09/03/18	19:15	Urretxu	Labeaga aretoa	Zintzo Mintzo
09/03/20	20:00	Paris	Euskal Etxea	Sustraiak - Erroak
09/03/20	22:00	Soraluze	Gaztetxea	Pil-Pilean
09/03/21	17:30	Shanghai	Euskal Etxea	Shanghai E.E
09/03/21	19:30	Shanghai	Euskal Etxea	Shanghai E.E
09/03/22	19:00	Markina	Uragon	Uragon K.E
09/03/24	19:30	Gasteiz	Montehermoso	GEU
09/03/25	20:00	Bilbo	La Bolsa	Lizardi
09/03/25	20:30	Aritz-Atxue	Aritz-Atxue	Ametza
09/03/26	19:00	Arrasate	Kulturte	AED
09/03/26	20:00	Iruizun	Kultur Etxea	Alzpea
09/03/26	20:00	Santurtzi	Kresala aretoa	Bai esan
09/03/27	11:30	Igorre	Lasarte Aretoa	Ganoraz
09/03/27	19:30	Amezketeta	Gela Polibaletea	Amezketeta KB
09/03/27	19:30	Areatza	Udaletxea	Ganoraz
09/03/27	20:30	Zizurkil	Atxulondo	Manuel Larramendi
09/03/27	22:00	Atarrabia	Gune Eszenikoa	Karrikaluze
09/03/31	19:00	Ortuella	Krisellu euskaltegia	Ortuella KB
09/03/31	19:30	Mahatserria	Begoñako udalategia	Asapala
09/03/31	19:30	Ordizia	Herri Antzokia	Hitzaro


Apirila

EGUNA	ORDUA	HERRIA	TOKIA	ANTOLATZAILEA
09/04/01	19:30	Zumaia	Alta Mari zinema	Baleike
09/04/02	19:30	Hernani	Biteri Kultur Etxea	Dobera
09/04/02	20:00	Derio	Gurea aretoa	Tximintx
09/04/02	20:00	Durango	Plateruena KA	Berbaro
09/04/02	20:00	Ermua	Lobiano KG	Euskal Birusa
09/04/02	20:00	Irun	EKT elkarte	Irun Iruten
09/04/02	20:00	Tolosa	Kultur Etxea	Galtzaundi
09/04/03	19:00	Londres	Oxford House	London Basque Society
09/04/03	19:30	Araspalditza	Udaletxeko aretoa	Hogekitalau
09/04/03	20:00	Lekunberri	Kantina Taberna	Maillope
09/04/03	21:30	Ezkio-Itsaso	Santa Lutziko KE	Yartu-Zintzo Mintzo
09/04/04	19:00	Antzuola	Torresoroa	Antzuola KB
09/04/07	20:00	Blaisteri	Blaisteri zinema	Tiki-Itaka

Martxoaren 5etik apirilaren 7ra, Erroma, Urnieta, Shanghai, Durango, Gasteiz, Paris, Altsasun,... 8 film labur 46 auzo, herri edo hiritan. Horretan datza zirkuitua. Euskaldunek egindako zinea euskal ikus-entzuleen esku, begi, belarri, bihotz,... Sortzaile piloa, teknikari asko, laguntzaile, antolatzaile, babesle,... ehunka ikus-entzule. Ilusioa eta gaitasuna, nahia eta aukera, behar izana eta laguntza, ekimena eta ekoizpena, eguna, ordua eta lekua, aretoa, isil eta iluntasuna,..... emozioa eta plazera.

Zortzi istorio labur. Ordu beteko emankizuna.

www.topagunea.org



P.D. ONDO IBILI.

2008 (2' 45")

PuntutapArte PRODUKZIOAK TALDEA: YERA SANCHEZ, XABIER ZAPIRAIN, MAITE LEIZAOLA, IÑAKI ZAPIRAIN, MUXI LOPETEGI ETA GARAZI URDANPILLETA

PuntutapArte produkzioak taldeko kide guztiek ikus-entzunezkoen munduarekin lotura

duen ogibideak dituzte, telebista, irakaskuntza, irratia eta beste hainbat arlotan dihardute eguneroko jardunean. Film laburren eta antzeko ikus-entzunezko lanen ekoizpena aisialdiko eta sormen artistikoa asetzeko modu gisa hartzen du taldeak. Taldearen azken lanak ez dira oharkabean geratu, 'Beste aldean' (2008) filmarekin Huhezineman izendapena lortu dute, 'Biontzat' (2008) lanarekin Euskara saria Arrasateko Sexmetraian, eta P.D. ONDO IBILIK (2008) hirugarren saria lortu zuen Kameratoia 08-an.

P.D. ONDO IBILI filmaren protagonista da Leire, munduari bira eman nahi dio baina ezinezkoa zaio. Irudimena erabiliko du bisitatu nahi dituen hiriak Donostian bertan aurkitzeko.



BANKUAREN LAPURRETA

2008 (3' 15")

IÑIGO ARANBARRI, OLATZ ARRIOLA-BENGOA, KIMETZ BLANCO, TXABER FERNANDEZ, JULENE LARRAÑAGA, TXABER LARREATEGI, JOSU MARTINEZ

Ikus-entzunezko komunikazioko ikasle batzuek 2008an unibertsitatean burututako lana da hau. Honen ostean taldea desegin eta bakoitzak bere bidea hartu zuen: "batzuk kazetari dira, besteak langabetu eta baten batek bankuak lapurtzen jarraitzen du".

Filmaren izenburuak azaltzen duen bezala, banku baten lapurretaz jarduten du istorioak. Hiru mafiosok Bilboko banketxe baten lapurreta prestatzeko "plan eraginkorra" jartzen dute martxan.



Heigh Ho...

BERLINALE 09

KRISIALDIA BERLINALEKO GAI NAGUSI

URTERO BEZALA, AURTEN ERE BERLINALE JAIALDIAK OIHARTZUN EGIN DU BERLINGO KALEETAN. HONEN 59. EDIZIORA AKTORE UGARI GERTURATU DIRA, HAIEN ARTEAN CLIVE OWEN, MICHELLE PFEIFFER ETA KEANU REAVES, BESTEAK BESTE. LEHEN ALDIZ, EUSKARAZKO PELIKULA BAT IZAN DA ERAKUSGAI FESTIBALEAN; 'ANDER' EZ DA LEHIAKETARA AURKEZTU, BAINA HARRERA EZIN HOBEA JASO ETA SARIA ERE IRABAZI DU PANORAMA SAILEAN.

t. a. maider lacalle

Hiriarekin gertatzen den bezala, Berlinale zinema jaialdiaren atzean historia politiko sakona ageri da. Gerra hotzaren erdian sortutako film politikoen bilduma erakusten zuen festibala, egun Venezia eta Cannes-en egiten diren tatetik hurbil dago ospe eta kalitatean. Donostiako Zinemaldia ere gertu geratzen zaiolarik. Aurreko urtean, 21.000 lagun hurreratu ziren bertara 120 herrialde desberdinetatik.

Zinemaldia iritsi eta 3 milioi hiritar baino gehiago dituen itxura metalikozko hiri hau gune desberdinetan zatikatzen da biztanle, turista, produktore eta kazetariei ahalik eta film gehien eskaintzeko asmoarekin. Friedrichstadt Palast-en erakusten dira lehiaketara aurkeztutako film asko. *Art deco* itxura duen eraikinak 1984. urtean berrieki zizkion atea publikoari eta egun antzezlanetarako batez ere erabiltzen den "jauregia" da, alemaniarazko hitzak erakutsi legez.

Filmak ikusi baino lehenago zinemazaletasuna sentitu nahi izanez gero, Potsdamer Platz-era gerturatzea da aproposena. Bertan kokatzen dira Helmut Jahn-ek diseinatutako Sony Centre jatetxe, kafetegi eta zinema konplexu ikaragarria, eta baita aktoreek prentsaurrekoak ematen dituzten Hyatt hotel izugarria ere.

Potsdamer Platzeko Berlinale Palastek zabaltzen die urtero alfonbra gorria bertara hurbiltzen diren izarrei. Aurtan bertan ikusi ahal izan ditugu Londresen jaiotako Tilda Swinton eta Bartzelonako Isabel Coixet, nortzuek Berlinale 59. edizio honen epaimahaia



berlinale palasteko alfonbra gorritik pasa ziren keanu reaves eta michelle pfeiffer bezalako izarrak

osatu duten, besteren artean.

Aurtengo Berlinale, munduak bizi duen krisi egoeraren isla izan da. Urrezko hartza saria -hartza Berlin hiriko sinboloa delarik- 'La Teta Asustada' peru-espainiar filmak irabazi du, eta gidoi onenarentzako zilarrezko hartza 'The Messenger' filmak irabazi du, zeinean jada ezaguna baino ezagunagoa dugun Woody Harrelson aktoreak Irak-en eraildako senideen familiei berri txarrak emateko kargu ofiziala duen. Harrera ezin hobe izan du batzuetan motela suerta daitekeen film honek. Gai interesgarria jorratzen du 'The Messenger'-ek eta aldiro umore erraza erabiltzen du tragedia nolabait jasangarriagoa egiteko. 2001 urtetik Berlinaleko zuzendaria den Dieter Kosslick-ek adierazi zuenez, aurtengo zinemaldiak ez du guda berez islatu nahi izan, "honek etxean duen eragin psikologikoa" baizik.

lehen aldiz, euskarazko pelikula bat izan da erakusgai festibalean; ANDER (roberto caston-ek zuzeduta) ez da lehiaketara aurkeztu, baina harrera ezin hobe jaso eta saria ere irabazi du panorama sailean

2005eko uztaillean Londonek jasandako metro eta autobusetako bonba erasoan inguruan aritzen den 'London River' filmeko Sotigui Kouyate-k irabazi du aktore onenarentzako zilarrezko hartza. Zuzendari hobeenarentzako zilarrezko hartza, berriz,



Heath Ledger-en emazte izandako Michelle Williams biltzen dituen ezin egokiro antzez-tutako film luzean. Hau eta aurtengo zine-maldiari hasiera eman dion 'The International' (Clive Owen, Naomi Watts) filmak dira mundua inflexio puntuan dagoela adierazten digutenak. Azken pelikula hau mundu maila-ko banketxe baten ekintza ilegaletan oinarrituta dago eta honako hitzekin agertzen da posterra: "Zure dirua kontrolatzen dute. Zure gobernua kontrolatzen dute. Zure bizitza kontrolatzen dute. Eta denok ordaintzen dugu".

Urrian 20 urte beteko dira Berlineko harre-sia erori zenetik eta kritika batzuen ustez, film hauen erakustea adierazgarria izan da benetan. Aurtengo festibalak berrikuntza ugari ere eskaini ditu. Haien artean, 70 mili-metroko film klasikoen proiektzioa -'Ben Hur' eta 'Lawrence of Arabia', esaterako- eta *Kulinarisches Kino* edo janarian oinarritutako zinema atal berezia. Honi hasiera eman dion filma 'Food, Inc' izan da, AEBetako janaria sortzeko industrian barreneko begirada bat eskaintzen diguna ●

Asghar Farhadi-k eskuratu du 'Darbareye Elly' (Elly-ri buruz) filmagatik, zeinak klase ertaineko iraniar talde baten Kaspiar Itsasorako bidaia kontatzen duen.

Lehiaketara aurkeztutako baina saririk iraba-zi ez duen aipatu beharreko filma da 'Mammoth' (Mamut), zeinak Gael Garcia Bernal eta aurreko urte hasieran hildako

BETAURREKO PROGRESIBOAK:

147,00 €

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48

Olagibel, 33 t. 945 25 40 84

GASTEIZ



BERLINALE 09

ALI ECKERT, ARGAZKILARIA:

“Artean ere, zure esku dagoena egiten saiatuz gero egin beharrekoa egin duzula esan dezakezu”



ali eckert berlineko
strychnin gallery-n

Aurtengo Berlinale zinemaldiaren 59. edizio hau Alemaniako artista gazte batentzat aukera berezia izan da bere lana kaleratzeko. Ali Eckert eskolatik atera eta gero hasi zen argazkigintza ikasten eta aurten bere lanek 'Pulp Fiction' (1994) eta 'Jackie Brown' (1997) filmeengatik ezagutzen dugun Quentin Tarantinok zuzendutako azken filmaren omenean ospatutako jaialdiko aretoa dekoratu dute.

'Inglorious Basterds' (2009) Tarantinoren azken filmaren jaialdia Berlineko WMF klub ospetsuan ospatu da zinemaldia martxan egon den bitartean. Berlingen grabatutako filmaren jaialdi honetarako ordenagailuz manipulaturako 'kitsch' eta 'pop art' bezala ezagutzen diren bere argazkiak aurkeztu ditu Eckertek.

GEU aldizkariari eskainitako elkarrizketa eskusibo honetan, Eckertek Berlineko Strychnin arte galeriatik bere lana eta ibilbide profesionala kontatzen dizkigu.

Zeintzuk izan ziren zure hastapenak?

Eskolatik irten bezain laster hasi nintzen argazkigintza ikasten. Ikastaro bat burutu nuen 1984. urtean eta hori eta gero zinemagintzan hasi nintzen lanean. Zinemaren inguruan proiektuak egiten ari nintzela ohartu nintzen diru, denbora eta esfortzu handia behar zela proiektu bakarra burutze-ko eta zaila da hori, artistek gauzak bukatu-ta ikusi nahi ditugulako hurrengo lanari ekin ahal izateko. Bi diziplinak ditut gustuko, bai argazkigintza eta baita filmagintza ere; gauza da bata bestea baino arinagoa dela, ez errazagoa, eta osagarriak dira zentzu horretan. Egun argazkigintzan egiten dut lan batez ere; hor daude nire sustraiak eta maite dut nire lana.

Zerk liluratzen zaitu lanak sortzerako orduan?

Liluratzen nauen lehen gauza jendearen erantzuna izaten da; publikoarengan bilatzen dudana erantzuna entretenimendua da eta istorioak kontatzen dituen artean dut interesa. Askok gustatzen zaizkit 'trash' (zaborra izendatutako artea), kitsch, sexua eta historia elementuak biltzen dituzten obrak. Hauek guztiak bildu eta nolabaiteko kontraesana sortzen saiatzen naiz; berez zentzurik ez duen kontzeptu bat. Esaterako, *B-movie*ak (produzio merkeko filmak) oso balioarria den zeozer bilakatuz.

Nola lortu duzu zure lana Tarantinoren jaialdian zintzilikatua izatea?

Tarantinok berak eta filmaren produkzio konpainiak eskatu zidaten nire lana filma-



ren jaialdian erakutsi nezan. Zorte ona izan dudalakoan nago. Tarantinoren filma Berlinen ekoiztuko zela jakin nuenean kontaktuan jarri nintzen produktore taldearekin eta pixkanaka nire lana erakustera iritsi naiz. Nire ustea beti izan da "Tarantinok nire lana ikusi behar du; baliteke gustuko izatea". Jendeak askotan esan dit nire lanak Tarantino kutsuak dituela. Lehenik eta behin, ez dut izendapen hau gogoko inork ez baitu norberaren lana beste baten lanarekin alderatua izatea nahi. Tarantino niretzat ikono bat da eta ez nuke inoiz bere lana nirearekin zapuztu nahi.

ALI ECKERTek 'VIDEO KINGS' (2007) UMOREZKO FILM INDEPENDIENTEA ERE ZUZENDU DU, BERLINEN GRABATU ZENA

Zer erakutsi duzu jaialdian?

Bi bilduma izan dira guztira. Batak *B-movie*en itxura jarraitzen du eta bestea emakumeen erretratuak dira (azken bilduma honetako obra bat galerian dago erakusgai).

Batak istorioak kontatzen ditu, eta besteak David LaChapelle argazkilari amerikarraren lanetik eragina jaso duten obra ausart eta esanguratsuak dira.

Zer espero duzu esperientzia honetatik?

Beti espero duzu norbaitek zure lana ikustea eta azkenik zure izena kanpora ateratzea; horrela hurrengo mailara salto egin nezake. Zortea benetan bultzatu behar duzu inoiz ezin dezakezulako ezer espero izan. Artean ere, zure esku dagoena egiten saiatuz gero egin beharrekoa egin duzula esan dezakezu. Nik egin ahal nuen dena egin dudala esan dezaket. Niretzat ez da hain garrantzitsua honetatik aterako dena, baizik eta momentu honetan nire eskura egon diren erreminta guztiak aprobetxatu egin ditudala. Jakingo banu egin beharrekoa egin ez dudala, orduan egongo nintzake deseroso nire buruarekin. Nire lana Tarantinoren azken filmaren estiloarekin bat datorrela esan genezake, baina horrek ez du esan nahi aukerarik dudarik bere hurrengo filmean artista moduan kolaboratzeko●

Iturrieta



TXOTX!!

bertako sagardoa

Sagardotegia



OSTEGUNETIK AURRERA
IREKITA.
Salnontzeko egunak,
enkarguz.

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593

MARIANNA BLASI

MARIANNA 33 URTEKO ITALIARRA DUGU. ERROMAN JAIO ETA HAZI ZEN, BAITA ANTROPOLOGIA SOZIOKULTURALA IKASKETAK BURUTU ERE, ETA UNIBERTSITATEAN ZEGOEN BITARTEAN ETA OSTEAN, MUNDUAN ZEHA BIDAIATU ZUEN. ONGI ASKO DAKI BERAZ, ETXETIK KANPO EGOTEA ZER DEN. FRANTZIAN, INGALATERRAN... BIZITZEN EGON DA, LEKU ZORAGARRIAK EZAGUTU DITU, ESPERIENZIA AHAZTEZINAK BIZI... ETA GUZTIEN ARTEAN EUSKAL HERRIA AUKERATU DU BIZILEKU.

t. ane pedruzo **a.** edorta sanz

Orereta izan zen ezagutu zuen lehen herri euskalduna eta ondoren jairik jai ezagutu zituen Bilbo, Iruña, Pasaia... Dioenez, oso atsegina suertatu zitzaion euskaldunon giroa, baita bertako konpromiso politiko eta kulturala ere. Honez gain, bere mutila Lasartekoa da eta iaztik elkarrekin bizi dira Gasteizen. Ordutik, euskara eta gaztelera ikasten dabil aldi berean. Gainera, haurdun dago eta argi dauka bere semea euskal gizartean haztea nahi duela. Gure protagonistaren aburuz, euskal izenak ederrak dira, askok naturarekin erlazio estua baitute. Horregatik, maiatz alde-
ra jaioko den mutiko euskaldun-italiarra Ekain deituko da. Ezagut dezagun bere ama...

Duzun biziorik handiena? Txokolatea eta izozkia.

Bertuterik? Irekia, nekaezina eta arduratsua naiz.

Akatsik? Harroputza naiz...

Zer eskatzen diozu bizitzari? Osasuna, zoriontasuna, ondo bizitzea..., oro har ondo egotea!

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Gezurrak. Nahiago dut ezer ez esatea, alegia, komunikaziorik ez egotea, gezur bat esan edo entzutea baino!

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Ez...

Egunkari bat? Italian Il manifesto irakurtzen dut eta hemen Gasteizen Gara, nire etxean ez dago beste aukerarik! Kar-kar!

Telebista saio bat? Ez dut telebista askorik ikusten. Halere, Italiako Report izeneko saioa gogoko dut, arazo sozialen inguruan hitz egiten duen programa bat da. Hemen Vaya semanita eta Teleberria ikusten ditut batik bat.

Beldurrik? Maite dudan norbaiten heriotza, baita nirea ere.

Oporrak non eta zertarako? Hego Amerika osoa zeharkatu nahi dut. Dagoeneko Ertamerikan ibilia naiz, Mexikon, Guatemalan, El Salvadorren... eta han bizitakoak, ikusitakoak, euren literatura... liluratzon naute!

Nora ez zinateke joango? Agian Japoniara... Halere, bidaia oparituko balidate ez nioke gonbidapenari uko egingo, eh? Israelera ere ez nintzateke joango.

Eguna ala gaua? Eguna, argia dagoenez gogokoago dut.

Gasteizko gaua non? Kutxin. Beti bertara naramate eta aitortu beharra daukat gustura nagoela.

Liburu bat? Pasoliniren 'Ragazzi di vita', 50. eta 60. hamarkadetan Erromako periferian bizi ziren hainbat gazteren abenturak kontatzen ditu. Pasolini idazle erakargarria da, nire ustez Italiako intelektualetariko bat.

Film bat? Zergatik? Bernardo Bertolucciren '900'. Elkar izugarri maite eta gorrotatzen duten bi lagun ardatz izanik Italiako faxismoaren historia kontatzen du. Film ederra da benetan eta gainera Gérard Depardieu agertzen da, nire aktorerik kutunena.

Edari bat? Ardo beltza.

Janari bat? Pasta.

Kolore bat? Gorria.

Musika talde bat? Fabrizio di André, Mikel Laboa italiarra.

Kirol bat? Igeriketa.

Zer da Gasteizek duen onena? Dena hurbil dagoela, oso eskura.

Txarrena? Giro kulturala eskasa dela Erromarekin alderatuz gero. Gainera argi gutxi dago...



Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Zaila da, gutxiak hitz egiten dutelako eta gainera dakitena askok ez dutelako erabiltzen.

Amets bat? Hego Amerikatik bidaia eder bat egitea.

Amesgaizto bat? Haurrari ezbeharren bat gertatzea.

Iragana, eguna ala etorkizuna? Etorkizuna, izan ere, seme baten zain nago eta dagoeneko nire bizitza bere inguruan antolatua bada, go, pentsa jaiotzen den unean!

Zer eskatzen du herriak? Eskubideak.

Euskaldunak nolakoak garela esango zenuke? Oso itxiak hasieran. Denborarekin eta pazientzia handia izanez gero, ezagutzero eman eta orduan oso lagun onak zarete. Honez gain, oso zuzenak zarete, konpromiso bat hartuz gero beti betetzen duzue●

proposamenak

liburua

'habitat'

katixa agirre
elkar-09
www.elkarlanean.com



bigarren ipuin-liburua kaleratu du katixa agirrek, igartza bekaren laguntzari esker: HABITAT, sei istorioz osaturiko bilduma, kokalekua duena ardatz eta lokarritzat: etxea: aterpe naturala, gotorleku sekretua, maitasunerako habia, independentziaren eremua, bakardade goxorako abagunea. etxea: gure habitat ideala. hori bakarrik al da etxea? gaur egun, luxuzko produktua ere bada. hipotekak. alokairuaren komeriak. auzokoekin gatazkak. feng shuiaren esperantza. sei ipuinetan zehar, pertsonaiek hain goxoa ez den bakardadea pairatuko dute, hain zintzoak ez diren maitasun istorioak biziko dituzte, mudantza etsigarriak eta bisita deserosoak agoantatu beharko dituzte, eta batzuek, dena galduko dute etxeak ordezkatzan duen ustezko independentzia horren eskizian.

ipuina

'elefante maitemindua'

'elefante maitemindua'
txabi arnal / marrazkilaria: koldo torrea
ibaizabal-09
(oker bilduma / 6 urtetik aurrera)
www.ibaizabal.com



nire hiriko parkean elefante maitemindu bat bizi zen. hala ere, munduan ez zegoen elefante hura baino animalia tristeagorik. zergatik?

zinea

'ander'

roberto caston
eh-09
www.ander.com.es



ander berrogeitaka urteko baserritarra da, ohiko bizitza egiten du bizikleta fabrika batean betetzen duen langile postuaren eta baserriko nekazaritza-lanen artean. Baserrian bizi da bere ama eta arrebarekin.

Egun batean istripu bat izan zuen eta hanka hautsi zitzaion; horregatik, familiak -amak errezeloak izan arren- Peruko etorkin bat, Jose, kontratatzea erabaki zuen baserriko lanak egiteko.

Joseren etorrerak etxeko bizitza ezezik Anderrena ere aldatu egingo du; izan ere, Anderri sentimendu batzuk sortuko zaizkio (berak ez zekien sentimendu horiek zeuzkala), barruko gatazka handia ekarriko diotenak.

Peiorekin (bere lagunik onena) eta Remerekin (eskualdeko prostituta) duen harremana ere aldatu egingo da pertsonaia hori dela medio, bi lagun horiek jarrera bat hartu beharko dutelako.

musika



EUSKAL MUSIKA. SOILIK EUSKARAZ?

t. uhina

Euskal musika etiketa musikala al da? Zer-nolako taldeak edota musika mota sar daiteke kutxa honetan? Herrikoia dena? Euskaraz abestutakoa?

Euskal musikari buruz hitz egiten dugunean askotan soilik euskaraz egindako musika bururatzen zaigu baina, ez al dira euskal musika taldeak Euskal Herrian musika ekoizten duten talde guztiak?

Etiketak oso baliagarriak dira gure artean ulertzeko eta berehala edozer gauzari izena jartzeko eta jakina, gure gustukoa den jakiteko!, baina kasu honetan kontrakoa sortarazten dute, hau da, horrelako etiketa batek nahasteko balio du.

Horregatik, euskal musika etiketa agian ez da ezta etiketa bat ere, ziur asko zerbait asmatua nonbait merkatuari zuzenduta salmentak areagotzeko. Euskal musikaren kutxan soilik euskaraz abesten duten taldeak sartzen baditugu, kanpoan utziko genuke Kepa Junkera adibidez. Musikari hau gaur egun gure kulturaren ikur bihurtu da eta munduan zehar gure herria ezagutarazteko aukeratua izan da. Bestetik, Soziedad Alkoholika ez litzateke euskal taldea, baina kasu honetan oso argi daukagu gure herriaren ordezkariak direla eta kanpoan jotzen duten bakoitzean harro-harro sentitzen gara gure lagunak eszenatokian ikustean. Eta zer esan Mikel Laboari buruz? Hainbat alditan kantatu duen moduan edozein herrialdetako zirudien bere hizkuntza partikular horrekin.

Argi ibili behar gara horrelako etiketak jartzerakoan eta oso ondo ezagutu behar ditugu taldeak etiketak jarri baino lehen. Nahiko etiketa jartzen zaizkie talde guztiei eta gainera gure kasuan beste bat aurkitu dugu. A zer korapilatsuak garen batzuetan!

Milaka talde interesgarri ditugu herri txiki honetan, aurrekoak eta oraingoak, sailkaezinak. Kasualitatez kontzertu batean aurkitzen baditugu bere musikaz disfrutatzeko parada izango dugu inolako mugarik gabe. Gero eta aniztasun handiagoa dago euskal taldeen artean, beste bide batzuk hartzeko asmoz eta ikuspuntu ezberdinak erakusteko. Musika, musika, beti musika! ●

EUSKARAREN GALERA MENDEBALEKO LAUTADAN, MENDOZA INGURUAN



Martiodan euskaldunak ziren 1801ean Prestameroren arabera

kike fdz de pinedo

Arabako ekialdeko Lautadan euskararen nagusitasuna erakusten dizkiguten agiri eta lekukotza ugari topatu dira azken urteotan. Mendebaleko Lautadaz, berriz, gutxiago genekien, oraintsu ordea, hizkuntza egoeraren berri dakarten agiri berri pare bat ezagutu dira. Bata, azken 'Euskara'-n dator, Pedro Uribarren eta Roberto Gonzalez de Viñaspreren eskutik. 1742ko agiri interesgarri honetan hilketa-auzi bat jasotzen da. Eskribauak deklarazioa hartu behar dio Mendoza eta Tresponde artean dagoen Momarioko errotariari, eta aldizka errotan eta Tresponden bizi den koinatari. Lehena jatorriz igorretarra da eta emakumea lehen Aramaion bizi izandakoa. Ez bata ez besteak ez dakite gaztelaniaz eta interprete lanak egiteko **Mendozako** Juan Fernandez de Gamboaren zerbitzuaz baliatu beharra daukate. Mendozako alkate eta epaile Jerónimo Diaz de Sarraidek euskaraz ez dakiela ere ondoriozta daiteke. Hortaz, hau da egoera: bi euskal elebakar, kanpotik etorritakoak baina bertan bizi direnak; eta Mendozako bi herritar, bata elebiduna eta bestea erdalduna (azken honen maila sozialak -alkate eta epai-

batzuk, ordea, ez dira enteratu edo ez dute nahi. galdetu bestela historiako erret-akademiakide, doktore, katedratiko, euskal herriaren adiskideen elkartekide eta beste hainbat tituluren jabe dugun martin almagro jaunari, berriki iruñ-veleiaiko grafitoen gainean, lasai asko correon eta copen esan baitu, auzi hau historia manipulatzeko saialdi bat baino ez dela izan, leku horietan, ez lehen eta ez inoiz, ez baita euskaraz egin. ezjakintasun ausarta edo aurreiritzi interesatua? igual biak nahast

le-, harreman sareak eta ikasketek zerikusia izango zuten seguru asko).

Lorenzo de Prestamerok 1803 urtearen inguruan 'Pueblos de Alava por vicarías...' idatzita utzi zuen. Bertan beste gauzen artean "*hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la vicaría de Vitoria*" irakur daiteke. Badakigu "*Vicaria*" honen eremua Langraiz Okaraino iristen zela, nahiz eta A. Ibisatek zehaztu zuenez lehen zirriborroan "*algunos*" jarrita zegoen. Edozelan ere, iaz,

hil baino lehentxeago, H. Knörrek Krakowian Humboldt-en ondarean gordetako 1801 urte inguruko Prestameroren beste dokumentu baten berri eman zigun, aurrekoa baino zehatzagoa. Honetan, Arabako ermandadeen zerrenda baten gainean, biztanle kopurua eta hizkuntza egoera zehazten zaigu eta Gasteizko mendebaldeari dagokionez hau diosku: "*Hermanidad de Martioda: se habla bascuence, 20 vezinos*"; "*H. de Iruña (Trespuestas, Villodas e Iruña): bascuence y romanze, 66 vezinos*". Badaiotz eta Mendozako ermandadeetan, ez dago hizkuntza azalpenik, eta baliteke euskara galdu berri izatea.

Bestalde, ezaguna da Landazurik 1798an idatzitakoa: "*consta que la perdida del bascuence es en el presente y de pocos años a esta parte por lo respectivo a las hermandades de la llanada de Alava en que ha fallado ya su uso y en que constantemente se ha hablado, pues testifican las personas de alguna edad haber sido corriente su uso en hermandades en que hoy nada se habla*". Era berean, hau jakinarazten digu: "*...según me aseguró Don Juan Miguel Ruiz de Lezana, Comisario del Santo Oficio, Cura y Beneficiado del dicho Lugar, que tenía la edad de 87 años, en su tiempo se hablaba el vascuence en Nanclares...*".

Toponimiari dagokionez, ekialdeko Lautadan bezain trinkoa eta ugaria da euskal toki izenen agerpena, XX. mendean batzuk galdu edo itxuraldatu diren arren. Adibide moduan, Billoda edo Tresponde arteko Arkiz muinoan, ditxosozko hiri erromatarren eremuan, toki-izen hauek: *Iruña*, *Irumbide* (1740 urtea), *Irumbea* (1706), *Irumbarria* (1706), *Yrunbarruti* (1574), egun *Lombarriti*, *Arrizurioste* (1714), egungo *Recidioste*?; edo ondoko harrobiaren izena *Askorrigana*, non maki- nek bertan zegoen trikuharria suntsitu zuten...

Honenbestez, euskararen **desagerpena honelaxe laburbilduko genuke:**

- Langraiz Okan euskara bizirik XVIII. mendearen hasieran; erdialdean edo bukaeran

desagertua; euskal toponimiaren dentsitate ahulagoa.

- Mendozan, XVIII. mendearen erdialdean euskararen gainbehera hasita, mende berriaren hasieran ez zen euskaldunik gertuko.
- Billoda eta Tresponden, XIX. mendearen hasieran egoera elebiduna, eta seguruenez hurrengo belaunaldian erdalduna.
- Martioda, azkenik, XIX. mendearen hasieran euskalduna izanik, aurrekoetan baino apur bat beranduago erdaldunduko zen. Ohi bezala, prozesu azkarra, elebidun bilakatu eta gutxira euskara galdu.

Oraindik hainbat xehetasun falta dira, baina Lautadako hizkuntza bilakaera gero eta hobeto ezagutzen dugula ezin da ukatu.



Mendozan baziren euskaldunak XVIII. mendean

Batzuk, ordea, ez dira enteratu edo ez dute nahi. Galdetu bestela Historiako erret-akademikide, doktore, katedratiko, Euskal Herriaren adiskideen elkartekide eta beste hainbat tituluren jabe dugun Martin Almagro jaunari, berriki Iruña-Veleiako grafitoen gaine-

an, lasai asko *Correon* eta *COPEN* esan baitu, auzi hau historia manipulatzeko saialdi bat baino ez dela izan, leku horietan, ez lehen eta ez inoiz, ez baita euskaraz egin. Ezjakintasun ausarta edo aurreintzi interesatua? Igual biak nahastuta. ●

errezeta

diocesanaz-mendizorrotzako ostalaritza eskola

IZOKIN MARINATUAREN LOREAK, URAZA *BOUQUET*A ETA BELAR LEUNEN MUSELINA

Osagaiak

- Izokin freskoa
- Uraza
- Tomatea
- Tipulina
- Aneta
- Albahaka
- Gatza, azukrea eta piperbeltza
- Oliba-olio birjina
- Jerez-eko eta Modena ozpina
- Izokin arrabak
- Maionesa saltsa

Elaborazio prozesua:

Lehenik eta behin izokinaren marinatua egin behar da. Hiru egunetako luzapena duen prozesua da eta ezinbestekoa da izokina hezurrik gabe izatea eta ahal bada bi solomotan ebakia. Gatza (700 gr), azukrea (300 gr) eta piperbeltza nahastuz marinatua egiten da. Bi solomoak marinatuarekin estali, *film* papezarekin bildu eta kamara batean sartzen dira, gainean zerbait jarri pisua egin dezan. Hurrengo egunean izokinari buelta ematen zaio eta beste aldearekin berdina egiten da. 72 ordu pasa direnean, solomoak garbitu eta lehortu egiten dira eta haragiaren alde olio eta aneta ontzute batekin estaltzen da. Hutsean ontziratu eta 2 gradutan gordetzen da (10 egunen buruan iraungitzen da).



Urazak ongi garbitu (lixiba tanta gutxi batzuekin 5 minutuz ongi garbitu eta ondoren ur hotzetan bost minutuz mantendu) eta ur guztia kendu ostean ontzi batean ipintzen dira, hezetutako zelulosa zati batekin estalduta. Urazak kontu handiz manipulatuta behar dira ximurtu ez daitezen.

Tomateak konfitatzeko egin beharreko lehenengo pausoa tomate gogorrenak eta gorrienak direnak aukeratzea da; garaian egonez gero madari-tomateak erabiltzea aholkatzen da eta bestela adar-tomatea erabili daiteke. Bigarren pausoa tomatea zuritzea da, horretarako galdarraztatu egingo dugularik (irakiten dagoen uretan denbora gutxi eduki

behar da; nahi bada konbekzio labea ere erabili daiteke galdarraztatzea egiteko, kasu honetan lurrin ikutu bat ematea nahikoa izango litzatekeelarik tomateak zuritzeko). Ondoren tomatea kontu handiz mozten da *casse* gisara, gatza, piperbeltza eta azukrearekin gertatu, erretilu batean ipini eta 120 gradutara dagoen labean sartzen da, ordubetez bertan uzten delarik. Laugarrenez eta azkenik, aipatu denbora pasa eta gero labetik atera eta erromeroz lurrineztatutako oliba-oliotan konsternbatzen da.

Belar muselina egiteko errezeta honetarako aukeratu diren lurrineztatuekin pure bat egiten da. Pureari (honek ahi horien ehundura izan dezan) maionesa gehitu behar zaio.

Aurkezpen proposamena:

Muselinarekin platera estaltzen da, erdian aurrez gatzozpindutako (Jerez-eko eta modena ozpina neurri berean erabili behar dira maneatzeko oliba-olioarekin batera; nahi izanez gero mustarda eta ezti ere erabili daitezke) urazekin *bouquet*a eginez. Marinatutako hiru izokin-arrosa, hiruki forma emanez plateran kokatu eta arrosa artean izokin arrabez apaindutako tomate konfitatua ipini. ■



m. josean morlesin



zutabea

“Gazteagoa nintzenean”

t. erlantz urtasun antzano.
historialaria

“Cuando era más joven, viajé en sucios trenes que iban hacia el norte...”. Horrela dio hurbil senditzen dudun 80. hamarkadako abesti batek. Izan ere, orduko zenbait igandetan, Gasteizen tren ziztrin bat hartu eta Gipuzkoa alderat jotzen bainuen, bada-kizue, “próxima parada” Alegría, Salvatierra, Araia, Alsasua, Brinkola, Legazpi, Beasain, Ordizia, Tolosa,...

Hagítez gehiago baziren ere, orain eta hemen herri, geltoki guziak aipatzeak zentzu handirik ez duela garbi dago. Ene asmoa bertzelakoa baita, irakurle laztana, hain zuzen ere erran nahi dudana da tren

horiek hartzen nituela Gipuzkoan euskara gehixeago entzuteagatik...

1978an ezetz erran genion espainiar konstituzioari arabarrok. 1986an ezetz erran genion NATOri arabarrok. Nola ez oroitu Arabako Bertsolari Txapelketa horiek, non lau katu elkartzen baikin! Handik honat ez dut berriz ere tren gehiegi hartu, eta aitortu beharra dut Gasteizen, Araban oro har, euskara gehixeago entzutekotz aukerarik ukan badudala.

Hau argitaratzen denerako, baina, auskalo zer gertatu den Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aginte autonomikoari dago-kion hauteskundera. Nago, baina, mundua aldarazi dutela, zahartu egin digutela, niri gertatu zaidan moduan, eta hautes-

kundearen emaitza-ren nondik norakoak oraindik barruntatzen ez baditut ere, susmoa tinkoa dut, hots, ez dut uste euskararen aldeko lan instituzionala handituko denik, nabarmen ahuldutako dutela baizik.

Orain trenak berriagoak baitira ene gaztetasunean baino, dotoreagoak, azkarragoak. Nola amaitzen zuen abesti hark? “Pero algunas noches, pierdo el apetito y no puedo dormir, y sueño que viajo en uno de esos trenes que iban hacia el norte. Cuando era más joven, la vida era dura, distinta y feliz...” ■




geusex@emaize.com

Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak: geusex@emaize.com.



Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.

emaize sexologia zentroa. gizon eta emakumeentzako arreta
bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

Kaixo, 25 urteko neska naiz eta urte eta erdi daramat nire bikote-arekin. Izaten ditugun harreman sexualetan ondo pasatzen dugu, baina hiru alditan berak eiakulatu du nahi baino lehenago eta garrantzi handia ematen ari zaio horri, gehiegizkoa. Zer egin dezaket honek eraginik ez izateko?

Bi ideia helarazi nahi dizkizuet, lagun-duko dizuetelakoan:

Lehengoa da, harreman erotikoetan, enroilatzen zaretenean, gauzak gertatzen diren ordena (musuak, sarketa baginala edo anala, ahoarekin eginiko laztanak, xuxurlatzea,...) ez direla ordena konkretu batean zertan izan. Pelikuletan ikusi dugunagatik, pertsona batzuek esan diguten gauzengatik, etab., pentsatzen dugu era zehatz batean pasa behar direla eta hau

askotan ondorio negatiboak izan ditzake eta erlazio erotikoak pobretu. Gainera, esaten duzun moduan, zailtasunak sor ditzake, hau da, kezkatu edo gaizki sentiarazi.

Erlazio erotikoak era desberdinetan eta ordena askotan izan daitezke. Adibidez, pertsona eta bikote batzuek uste dute (horrela entzun dutelako eta informazio egokia izan ez dutelako) neskak sarketa baginalarekin orgasmoa izan behar duela eta hau gertatu ondoren, mutilak eiakulatu dezakeela eta orgasmoa sentitu. Baina honek ez dauka zertan horrela izan.

Bigarren, ez dirudi gaixotasun batenagatik izango denik. Ez dakit zure bikoteki-deak zenbat urte dituen, botikaren bat hartzen ari den, ezta zein ohitura duen sustantzien kontsumoetan ere, etab. Hortaz, ezin dut ezer ziurtatu. Ohikoa izaten da mutil gazteengan, neska oso erakargarria denean beraientzat eta/edo harreman ero-

tikoak askotan izan ez dituztenean, haiek nahi baino lehenago eiakulatzea.

Zer da azkar eiakulatu? Pertsona bakoitzaren arabera eta egoeraren arabera: mugimendu koital batzuk, minutuak, segunduak,... ? Ez da zerbait objektiboa, pertzepzio subjektiboa baizik.

Zergatik bukatu behar da kontaktu erotikoa mutilak eiakulatzean? Bere genitalek denboraldi bat beharko dute lasaitasunean, baina beste gorputz osoak ez dauka zertan, beraz bere gorputzeko beste atal batzuekin jolasten jarrai dezakezue eta oso ondo pasa. Hau baita garrantzitsuenak: sentitzea, gozatzea. Eta zergatik ez duzue hurrengoetan koitoa alde batera uzten eta gogoak sentzazioetan jarri? Denbora alde batera utzi eta aurrera.

*miren lopez de arregi lakuntza
emaize sexologia zentroa*

elkar zaitetz merkeago erosteko

marketroops
little buyers revolution

www.marketroops.com



KO-KO-KO KORRIKA!



VI. ZINEA EUSKARAZ

Film laburren Zirkuitua



Kabia

Eider Rodriguez, Nagore Arozena,
Garazi Rodriguez, Egoitz Sanchez,
Garazi Sanchez, Maialen Sukunza
eta Amaia Uribe

8'



Egiatik

gezurrezko bizitzara

Ostegunear afaria zure kontu taldea:
Ander Odriozola, Iñaki Andonegi eta
German Rubio

3'57"



Lo bakarrik

Iban del Campo Uribarrena

14'



Poema

baten irakurketa

Euskal Herrian

IKB: Xabier Iñarrairaegi eta Karlos Eriz

12'



Musika

Asier Urbieto San Martin

4'



P.D.Ondo ibili

PuntutapArte Produksioak taldea:

Yera Sánchez, Xabier Zapirain,
Maite Leizaola, Iñaki Zapirain,
Muxi Lopetegi eta Garazi Urdanpilleta

2'45"



Berde

Jose Luis Barredo,
Iñigo Garcia

8'40"



Bankuaren lapurretara

Iñigo Aranbarri, Olatz Arriola-Bengoia,
Kimetz Blanco, Txaber Fernandez, Julene
Larrañaga, Txaber Larreategi eta Josu Martinez

3'15"

æk korrika KULTURALA PROGRAMAZIOA

**ongi
etorri**

euskaraz
bizi nahi
dugunon
herrira


Martxoak 1	Hondarribia	Hondartza kiroldegia	18:00	Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Martxoak 6	Ondarroa	Kafe Antzokia	18:30	Atxikistan (estreinaldia)
Martxoak 6	Bilbo	Bilborock aretoa	20:00	Erregea eta bufoia
Martxoak 6	Bergara	Zabalotegi aretoa	22:30	Kanpaiak jo bitartean
Martxoak 7	Donostia	Doka Kafe Antzokia	21:00	Mirande Kabareta
Martxoak 10	Santurtzi	Kresala aretoa	20:00	EHko 20 sekretu txiki
Martxoak 12	Tutera	Castel Ruiz kultur etxea	19:30	Erregea eta bufoia
Martxoak 13	Gasteiz	El Jardín de Falerina kafetegia	20:30	Mirande Kabareta
Martxoak 14	Donostia	Antiguako frontoia	21:00	Ibañeta
Martxoak 14	Igorre	Lasarte aretoa	21:00	Mirande Kabareta
Martxoak 14	Bera	Kultur etxea	22:00	Kanpaiak jo bitartean
Martxoak 15	Elizondo	Lur dantzalekua	17:00	Atxikistan
Martxoak 15	Orereta	Niessen aretoa	18:00	Anitzak Hitzak (estreinaldia)
Martxoak 17	Iruñea	San Fermin peña	20:30	EHko 20 sekretu txiki
Martxoak 21	Zizur	Pilotalekua	22:00	Betagarri
Martxoak 22	Miarritze	Plaza Berri	20:30	Ibañeta
Martxoak 25	Mutiloa	Kultur etxea	18:00	Karrika Korri
Martxoak 26	Tutera	(Korrika 16ren hasiera)		Soka (Kukai dantza taldea)
Martxoak 26	Tutera	(Korrika 16ren hasiera)		Atxikistan
Martxoak 26	Amurrio	Amurrio antzokia	19:30	Erregea eta bufoia
Martxoak 27	Galdakao	Torrezabal kultur etxea	17:30/19:30	Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Martxoak 28	Durango	Plateruena	22:00	Anitzak Hitzak
Martxoak 28	Altsasu	Iortia kultur gunea	20:30	Mirande Kabareta
Martxoak 29	Baigorri	Biletze zinegela	18:30	Erregea eta bufoia
Apirilak 3	Bilbo	Bilborock aretoa	22:00	Anitzak Hitzak
Apirilak 5	Gasteiz	(Korrika 16ren bukaera)		Soka (Kukai dantza taldea)
Apirilak 5	Gasteiz	(Korrika 16ren bukaera)		Atxikistan
Apirilak 5	Gasteiz	(Korrika 16ren bukaera)		Betagarri



atxikistan
antzezleak martxoan



MIRANDE KABARETA
KUKAI HERRIKO HOGI SEKRETU TXIKI



Lizarra
martxoak 6

Sestao
martxoak 13

Munitibar
martxoak 20

Donostia
martxoak 7

Garralda
martxoak 14

Zizur
martxoak 21

Gasteiz
martxoak 12

Orereta
martxoak 15

Arratia
martxoak 22

KORRIKA EGUNETAN
Tutera martxoak 26
Iruñea martxoak 28
Baiona martxoak 29
Bilbo apirilak 3
Gasteiz apirilak 5

www.korrika.org

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

LAGUNTZAILEA:
GEU